

**EUSKARAREN
BILAKAERA
SOZIOLINGUISTIKOA
(1981-2011)**

**Transmisioa eta gaitasuna, portaera
linguistikoen motibo subjektiboak, eta
mintzajarduna: Bilakaera eta aurrera
begirako erronkak**

[LABURPENA]




(Disponible versión en castellano)

(English version available)



Argitaratzailea: Soziolinguistika Klusterra
Egileak: Iñaki Martínez de Luna, Xabier Erize, Mikel Zalbide
Koordinazioa: Belen Uranga, Uxoa Anduaga
Diseinua: Iñaki Gozalo (Zirrimarra diseinu grafikoa)
ISBN: 978-84-943708-2-3

 **Edizio digitala:** www.soziolinguistika.eus/bilakaera1981-2011



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



Iñaki Martínez de Luna

Soziologian Doktorea da. 1989tik 2015era UPV-EHUko irakasle atxikia eta 1986tik Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteko arduraduna izan da.

2001etik aurrera EHUren eta Asmoz Fundazioaren Hizkuntza Plangintza (Hiznet) gradu-ondokoaren zuzendaria, Soziolinguistika Klusterreko sortzaile eta lehenengo lehendakaria izan da; Bat Soziolinguistika aldizkariko zuzendaria; EAEko Euskara Aholku Batzordeko kidea eta Euskara 21 Batzorde-ataleko zuzendaria; Euskararen Erakunde Publiko/ Office Publique pour la Langue Basque-ko aholkulari-batzordekidea; Arabako Foru Aldundiko Euskara Aholku batzordeko kidea; Eusko Ikaskuntzako kidea eta 2007-2013 bitartean Añamendi Eusko Entziklopediako zuzendaria. 2015etik aurrera Euskaltzaindiako euskaltzain urgazlea.



Xabier Erize

Euskal Filologian doktorea da (1997). Espezializazio post-doktorala egin zuen Estatu Batuetan (Seton Hall University, NJ), soziolinguistikan eta ikerketa etnografikoan (1999). Joshua Fishman-ekin, "Hizkuntza eta Identitatea" ikasketak egin zituen New York University-n (1999). Unibertsitate-aditua da "Enpresen Zuzendaritza" eta "Erakundeen Portaera" gaietan, eta euskaltzain urgazlea.

Euskararen Aholku Batzordearen Euskara 21 batzorde-ataleko kidea da, EHUko Hizkuntza Plangintzako espezializazio graduondoko irakaslea.

Landu dituen gaien artean hauek daude: Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa; soziolinguistikako oinarrizko kontzeptuak; euskarari buruzko diskurtsoak, bai EAEn (*EGOD*) bai Nafarroan; eta enpresa munduko kontzeptuak hizkuntza-plangintzara egokitzea.




Mikel Zalbide

Euskal hizkuntzalari eta soziolinguista da. Ingeniaritzako goi-ikasketak egin zituen Nafarroako Unibertsitatean. Elhuyar Kultur Elkartearen sortzaileetakoa izan zen eta UZEI sortu zenetik, zientzia-tekniken alorreko arduradun teknikoa izan zen. 1981. urtean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean hasi zen lanean, eta ordutik Euskara Zerbitzuaren buru izan da 2015. urtera arte.

1983. urtean Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen, eta 2006an, euskaltzain oso. 2008an abian jarri zenetik, Euskararen Historia Soziala aztergai duen egitasmoko Zuzendaria da (Joanes Etxeberri egitasmoa).

Soziolinguistikaren eta hizkuntzaren soziologiaren alorrean ibilbide luzea egin du, alde teorikoan zein praktikoan, eta hamaika kongresu eta topaketatan izan da hizlari, Euskal Herrian zein European barna.

**EUSKARAREN
BILAKAERA
SOZIOLINGUISTIKOA
(1981-2011)**



AURKIBIDEA

6 HITZAURREA

7 **Iñaki Martínez de Luna**
Euskararen transmisioa eta gaitasuna, eta aurrera begirako erronkak

13 **Xabier Erize**
Euskal herritarren portaera linguistikoen motibo subjektiboen bilakaera (1991-2016), eta aurrera begirako bideak

24 **Mikel Zalbide**
Mintzajardunaren egoera eta azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak

HITZAURREA

Hemen aurkezten dugun liburuxka *Euskaren bilakaera Soziolinguistikoa (1981-2011)* izeneko proiektu zabalago baten laburpena da. Proiektua *Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin* elkar lanean egin du *Soziolinguistika Klusterrak*, eta horren bitartez, 30 urteetan euskararen presentzia sozialak izan duen aurrera-atzerakoa aztertu nahi izan da modu sakon eta zehatzean.

Egitasmoaren azterketa-gaiak hiru ardatz ditu: *euskararen transmisioa eta gaitasuna, euskarerikiko iritzi eta motibazio subjektiboak* eta *euskararen erabilera*. Bi egiteko nagusi planteatu dira hasieratik: alde batetik, azken 30 urteko ibilbidean bilakaeraren deskripzioa osatzea, eta bestetik, aurrera begirako erronkak identifikatzea.

Kontuan hartzekoa da azterketa euskararen lurralde osorako eginga dagoela, eta horretarako, bereziki baliatu izan direla Eusko Jaurlaritzak bost urtean behin argitaratzen duen Inkesta Soziolinguistikoa eta Soziolinguistika Klusterrak gauzatzen duen Euskal Herriko Erabileraren Kale Neurketa. Horrez gain, jakina, egile bakoitzak beste hainbat datu- eta informazio-iturri erabili ditu.


Diagnosia egiterakoan honako galderen inguruan aritu dira egileak: zenbat euskaldun gara lurraldeka edo adin-taldeka, zenbat ginen 80ko hamarkadan? Zenbateko/nolako ezagutza zuten/dute euskaldun horiek? Zein izan da euskaldun berrien bilakaera? Nolakoak ziren eta nolakoak dira hizkuntzaren inguruko iritziak, jarrerak, irudikapenak? Eta euskararen aldeko sustapenaren ingurukoak? Zenbat erabiltzen zen euskara eta zenbat erabiltzen da gaur egun? Nolakoa zen eta nolakoa da erabilera hori gizarteko jardun-gune ezberdinetan?

Zehazki, hiru txosten nagusi bildu ditugu hiru gai hauen inguruan: *Hizkuntza-gaitasunari* dagokiona **Iñaki Martínez de Lunak** eginikoa, *herritarren hizkuntzaren inguruko iritzi eta motibo subjektiboen* ingurukoa **Xabier Erizek** idatzia, eta *Mikel Zalbidek* landutako *hizkuntza-erabilerari* buruzkoa. Horrez gain, txosten nagusi horiei ekarpenak egin dizkiete honako hamar adituk (**Iñaki Iurrebaso, Patxi Juaristi, Jon**

Aizpurua, Jone Miren Hernandez, Joxpi Irastorza, Nekane Arratibel, Asier Irizar, Olatz Altuna, Lionel Joly, Xabier Aierdi). Egindako lanak egileek eurek aurkeztu zituzten 2016ko ekainaren 3an, Donostian, Soziolinguistika Klusterrak antolaturiko *VIII Euskal Soziolinguistika Jardunaldian*. Bertan eskainitako aurkezpenen bideoak ikusgai daude webgune honetan: <http://www.soziolinguistika.eus/Soziolinguistikajardunaldia2016>. Gainera, dokumentu horiek guztiak, BAT Soziolinguistika Aldizkariaren 99 eta 100 zenbaki monografikoetan argitaratu eman dira 2016. urtean.

Hemen aurkezten dugun liburuxka honek Iñaki Martínez de Lunak, Xabier Erizek eta Mikel Zalbidek idatziriko txosten nagusien edukiak bildu ditu, egileek eurek laburtuta (liburuxka gaztelaniaz eta ingelesez ere argitaratuko da). Irakurketa interesgarri bezain sakona egiteko aukera baliatu, eta hausnarketa eta proposamenetan murgiltzera gonbidatzen dugu irakurlea.

Euskararen transmisioa eta gaitasuna, eta aurrera begirako erronkak*



Iñaki Martínez de Luna

1. HELBURUAK, ZAILTASUNAK ETA KONPONBIDEAK

1.1. AZTERGAIEN INGURUKO ZALANTZA KONTZEPTUALAK

1.1.1. Hizkuntza-transmisioa

Hizkuntza-jabekuntzaren plangintza da gure aztergaiei dagokien eremua, Cooper-ek (1997: 122-193, 187) kontzeptu horri eman dion definizioaren arabera: “*hizkuntza bat ikasteko antolatutako ekintzak*”. Definizio horrek *ekintza antolatuak* ditu hizpide, eta horrekin atea ixten die zenbait transmisio motari kontzeptu horren pean sartzeko. Esaterako, familiaren, komunikabideen eta lagun arteko transmisioei, norberaren hautu askea -ez planifikatua- direlako.

Hizkuntza-jabekuntzaren eragile planifikatu nagusietako bat hezkuntza sistema izan ohi da (Moreno Cabrera, 2008: 50-51), eta euskara normalizatzeko ahaleginetan ere rol garrantzitsua ari da betetzen. Badago, hezkuntza sistemaren osagarri gisa uler daitekeen beste irakaskuntza planifikatu bat: helduen euskalduntze eta alfabetatzea. Kontzeptualki hezkuntza sistemaren bidezko irakaskuntza eta helduen euskalduntze eta alfabetatzea, bi biak, *hizkuntza-jabekuntzaren plangintza* ongi egokitzen dira. Aldiz, helduen euskalduntze-alfabetatzeak ez du lekurik *hizkuntza-transmisio* definizioan, ikaskuntza mota hori belaunaldiz belaunaldi burutzen ez delako. Izan ere, Soziolinguistika Hiztegiak (2010: 41) *hizkuntza-transmisioaz* ematen duen definizioa, hauxe da: *Hizkuntza belaunaldiz belaunaldi transmititzea, bereziki familiaren eta hezkuntza-sistemaren bidez*. Hortaz, batetik *hizkuntza-jabekuntzaren plangintza* ez luke familia bidezko transmisioa aintzat hartuko, eta bestetik *hizkuntza-transmisioak* ez luke helduen euskalduntze-alfabetatzea bere baitan hartuko.

Azkenik esan, familiaren (*lehen hizkuntza* edo H1) zein hezkuntza-sistemaren (*bigarren hizkuntza* edo H2) bidez hizkuntza ikasteko burutzen diren prozesuak badirela, definizioaren arabera, *hizkuntza-transmisio*, baina bi bide horien bitartez lortzen diren emaitzak ez dira maila berekoak izaten, jakina. Hala eta guztiz ere, *hizkuntza-transmisio* definizio horrek ez ditu bereizten hain ondorio ezberdinak dituzten prozesu horiek.

1.1.2. Hizkuntza-gaitasuna

Soziolinguistika Hiztegiak (2010: 49) eta *Soziolinguistika Eskuliburuak* (2013: 28) eskaintzen dizkiguten *Hizkuntza-gaitasunaren* gaineko definizioen esanahiek zalantzarako tartea zabalitzen dute egoera jakinetara eramatean. Ez dute lan honen premia asebetetzen oso kutsu formala eta abstraktua hartzen dutelako, hiztunek izan ohi dituzten erabilera praktikoak islatzetik lekutan geldituz. Adibidez, euskara H1 duen alfabetatu gabe batek eta H2 duen euskaldun berri batek, *Soziolinguistika Hiztegiak* emandako definizioaren arabera, *nahikotasun-maila* (2010: 23) izan dezakete euskaraz aritzeko. Baina bien hizkuntza trebeziak oso ezberdinak izango dira, eta egoera eta solaskide jakin batzuen aurreran dituzten zailtasunak ere bai. Zehaztasunik eza horren aurrean, *hizkuntza-eskakizun* (*Soziolinguistika Hiztegia*, 2010: 52) terminoak argi pixka bat ematen du, baina ez osoa, *hizkuntza-gaitasuna* lan-mundurako behar dela zehazten. Horrek garamatza, aintzat hartu nahi edo behar diren trebezia motez galdetzera. Hau da, *Commission of the European Communities*-ek (2005: 7) aipatzen dituen *irakurmena*, *entzumena*, *mintzamena* eta *idazmena* ezinbestekoak dira euskarazko gaitasuna badagoela esan ahal izateko ala horietako bat(zuk) baino ez?

* Testu hau BAT Soziolinguistika Aldizkariaren 99 zenbakian (2016) argitaraturiko txostenaren laburpena da, egileak berak egina.

Bestalde, euskal soziolinguistikan badago ugari erabilia den Hizkuntza-gaitasun erlatibo terminoa ere: "euskaraz hitz egiteko gaitasunaz edo gaitasun-ezaz gain, gaztelania baino hobeto edo errazago hitz egiteko trebezia ere adierazten du." (Sagarduy, 2009: 7)

Beraz, zalantza ugari izango dugu *hizkuntza-gaitasunak* zer izan behar duen ongi zedarritu ahal izateko, egoera jakinean asebate beharreko komunikazio premiak aurretik argitu ezean: a) *Zertarako* edo *zein diren* premia horiek; b) *Zer-nolako hizkuntza-trebeziak* behar diren; c) *Nolako ingurune soziolinguistikorako*; ingurune elebakar, elebidun edo eleanitzerako.

1.2. IPARRA FINKATU NAHIRIK

UNESCOK euskara *zaurgarri* mailan sailkatu du, hizkuntza nagusi eta boteretsuekin alderatuta duen estatusik eza dela eta. (UNESCO, 2010: 32, 35) Egoera horren aurrean, ez da ausardia handirik esatea gure aztergaiaren iparra *Reversing Language Shift* (RSL) dela, Joshua A. Fishman-ek sortutako ideia eta Zalbidetik (2015) euskaraz *Hizkuntza Indarberitze (HINBE)* izendatu duena; esanahia zera da: "*Funtzioak eta erabilgarritasuna galduz doan hizkuntza batek hizkuntza-ordezkapeneranzko joera hori etetea eta egoera iraultzea.*" (Soziolinguistika Hiztegia, 2010: 39)

Jomuga horri begira motz gelditzen dira *hizkuntza-gaitasunaren* definizioak, eta egokiago da Gumperz eta Hymes-ek (1972, in Zarraza, 2010: 29) sortu zuten *Komunikazio-gaitasun* kontzeptua: "*Hiztunak egoera desberdinetan behar bezala komunikatzeko behar dituen eza-gutzen multzoa. Arlo honetan, garrantzi handia du hizkuntza-barietate edo kode aproposa aukatzeak, edo konbentzio sozial eta linguistikoak errespetatzeak.*" (Soziolinguistika Hiztegia, 2010: 50)

HINBE prozesua arrakastatsu suerta dadin, *komunikazio-gaitasunaz* edo -Bourdieu- irudikatu zuen *hizkuntza-merkatua* gogoraraziz- *hizkuntza-kapitalaz* (Soziolinguistika Hiztegia, 2010: 34) ondo jabetuta beharko du euskal hiztunak. Baina, bide horretan beste zerbait gehiago ere behar da oraindik, elebidunak edo eleaniztu-

nak diren aldetik, euskaldunek beste hizkuntza-aukera erosoagoak badituztelako. Euskal hiztunek *Hiztun oso* behar dute izan: "*Hizkuntza-erabilera osoa, hots, gizarte funtzio guztiak behar bezala betetzeko modukoa, eta hizkuntza-kontzientzia bizia dituen hiztuna.*" (Soziolinguistika Hiztegia, 2010: 15-16).

1.3. HURBILPEN TEORIKOA

HINBE prozesuak eskatzen duen *hiztun oso* horretara iristeko *sozializazio* kontzeptua beharrezko zaigu (ikus Paula Kasares, 2013: 5). *Sozializazioa* azaltzean, Berger eta Luckmann-ek (1968) azpimarratu zuten gizakiok ez garela gizarteko kide jaiotzen, egin egiten garela, prozesu luze baten ondorioz. Era berean, gizakiok ez gara hiztun-komunitate bateko kide jaiotzen, baizik eta egin egiten gara, horretan ere prozesu luze baten ondorioz. *Hizkuntza-sozializazioa* horrela labur daiteke (Martínez de, 2013b: 121-123): 1) Hizkuntza bizia ikasten da, ez gramatika bezalako ezagutza formalik; 2) Hiru prozesu ditu: kognitiboa, identifikazioa eta afektiboa; 3) Taldearen hizkuntza eta harreman sareak bereganatzen dira; 4) Hizkuntza-komunitatearekiko atxikimendua eta talde kohesioa lortzen dira; 5) Hizkuntza-komunitatea birsortzen da; 6) Hizkuntza bizitzan zehar ari da ikasten eta premia berrietara egokitzen; 7) Lehen sozializazioa, funtsezkoena, haurtzaroan gertatzen da, batez ere familian; 8) Bigarren sozializazioa jarraian gertatzen da, hezkuntza sisteman, aisialdian, lagunarteko giroan, hedabideen bitartez, etab.; 9) Egoera sozial bakoitzeko hizkuntzaren egokitasuna eta erabilera premiak barneratzen dira; 10) Hiztuna ez da erabat determinatua; partaide aktiboa da eta jasotakoa alda dezake.

2. EUSKARAREN SOZIALIZAZIOA

Hizkuntza-sozializazioaren eragileak sozializazio orokorrean diharduten berberak dira. Hemen, euskararen sozializazioa aztertzeo aintzat hartu ditugun eragileak dira familia, irakaskuntza sistema, eta helduen ikaskuntza.

2.1. FAMILIA BIDEZKOA

Lehen hizkuntza (H1) esaten diogu, umeak hiru urte bete bitartean familian jasotako hizkuntzari, eta hizkuntza baten bizindarra neurtzeko faktorerik erabiliena da (Fishman, 1991, *in* UNESCO, 2003: 9).

Gurasoak biak elebidunak izanik, EAEko seme-alaben % 92k, Nafarroako % 83k eta Iparraldeko % 8k jaso du euskara H1 gisa, soilik edo erdararekin batera. Gurasoetako bat baino ez izanik elebidun, euskara erdararekin batera transmititu dute % 36k EAEn, % 29k Nafarroan eta % 15ek Iparraldean. (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2013: 29) Azken belaunaldi-tako transmisioaren hazkunderik adierazgarriena guraso euskaldun berrien kasuan gertatu da, transmisioaren balioak urte gutxitan halako hiru bihurtuz. (Sagarduy, 2009: 9, 13)

H1 gisa, euskararen transmisioa -soilik edo erdararekin batera- hazi da 25-34 adin taldetik 16-24 urteetakora: % 18,4tik % 22,8ra. Hala ere, H1 dutenen multzoa gutxiengoa da oraindik: Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko 537.000 (% 20,3) biztanle. Bestalde, 16-24 urte bitarteko elebidunen artean erdia baino gehiago dute euskara H2 gisa (% 51,8). (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2013: 29-31)

2.2. IRAKASKUNTZA BIDEZKO TRANSMISIOA

Arriskuan dauden hizkuntzak biziberritzeko jorrratu behar diren arlo garrantzitsuenen artean, irakaskuntza kokatzen du UNESCOk (2003: 5). Irakaskuntzan burutzen den euskara sozializazioa bi hiztun mota ezberdinez osatzen da gaur egun, horietako bakoitzean funtzio ezberdinak betez. Batetik, H1 euskara dutenak daude. Horiek, eskolaren bitarteko euskararen sozializazioa are txertatuagoa izan dezakete eta hiztun osatuagoak izango dira. Bestetik daude, H1 erdara izanik, hezkuntza sistemaren bitartez euskara H2 gisa ikasten dutenak haur eta gazte elebidunen artean gehiengoa diren *euskaldun berriak*.

EAEko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan, ikasle gehienak euskarazko erduetan ari ziren

ikasten ikasleen, 2011-2012 ikasturtean: %63 D erduan eta %20 B erduan. Gainerako ikasleak (%16) A erduan zebiltzan. (Euskararen Aholku Batzordea *eta al.*, 2014a: 49-50) Horiek horrela, galdera da ikasteredu bakoitzak nola-ko ahalmena izan ohi duen ikasleak euskalduntzeko.

2004-2005 ikasturtean, ISEI-IVEI-k euskarazko gaitasuna ezagutzeko proba bat burutu zuen EAEn, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako B eta D erduetako ikasleekin.¹ Horrekin jakin nahi zen zenbat ikasle ziren gai *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoko* B2 maila gainditzeko. Ikasleen % 53,7k gainditu zuen B2 maila: B erduan % 27,5ek eta D erduan % 57,2k. Horien artean euskara H2 zutenen % 38,6k gainditu zuten eta euskara H1 zutenen artean % 72,6k. (ISEI-IVEI 2005: 35, 47) Azken bi hamarkadetan zehar D erduak gero eta pisu handiagoa lortu du, batez ere A erduaren kaltetan.

Irakaskuntza sistemak badu euskaraz sakonago sozializatzeko aukera gehiago goi-mailako ikasketa unibertsitarioetan, ikasleek euskarazko adarrean ikastea aukeratuz gero. 2009/2010 ikasturtean 51.963 ikasle ziren Deustu Unibertsitatean, Euskal Herriko Unibertsitatean eta Mondragon Unibertsitatean matrikulatutakoak. Horietatik, % 61 gaztelaniaz eta % 39 euskaraz. (Unceta eta Luna, 2012) Soilik EHUko datuak kontuan hartuta, 2001-2002tik 2013-2014ra euskal adarra aukeratu zuten ikasleen proportzioa 12 puntu gehiagokoa izan da, % 48,1era iritsiz.

2.3. HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

Helduen Euskalduntze-Alfabetatze ikastaroek eta *Mintzapraktika* egitasmoak, H1 beste hizkuntza dutenak euskaraz trebatu eta sozializatzea bilatzen dute (euskara: H2). EAEn, 2012-2013 ikasturtean, 32.739 ziren euskalduntze ikastaroetan ibilitakoak (Euskararen Aholku

¹ Implizitu egon liteke A erduan eskuratzen den gaitasun maila ez dela nahikoa B2 probaren eskakizunak gainditzeko.

Batzordea *eta al.*, 2014b: 5); alegia, euskaldunak ez zirenen % 2,5 inguru.

2008/2009 ikasturtean, *Mintzapraktika* programak 2.840 partaide izan zituen, EAEn eta Nafarroan. Horien ustez programak balio izan zien: euskaraz gehiago egiteko % 85eri, ikasitakoa mantentzeko % 77ri, euskara maila hobetzeko % 74ri, euskaraz bizitzeko nahia handitzeko % 62ri, lagunak egiteko % 50eri, EGA edo beste agiri ofizialen bat prestatzeko % 36ri eta lane-rako % 35eri. (Aztiker, 2010)

3. HIZKUNTZA-GAITASUNA

HINBE prozesuari begira, garrantzitsua da gal-deren isuria etetea eta hiztun berriak irabaztea.

3.1. GAITASUNAREN HEDAPENA ETA BILAKAERA

2011ko datuen arabera, Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 27 *elebiduna* da (714.000 biztanle), 1991an baino 185.000 gehiago. Beste % 15 *elebidun hartzailea* zen (euskaraz zerbait jakin arren hitz egiteko gai ez dena) (388.000 biztanle) eta % 58 *erdalduna* (1.547.000 biztanle).

Bestelakoa da, EAEko gune soziolinguistiko euskaldunen bilakaera, non elebidunen proportzioak behera egin duen: 1991n biztanleen % 90 zen elebiduna eta 2011an, aldiz, % 83. (Euskara Aholku Batzordea *et al.* 2014b: 6)

3.2. GAITASUN ERLATIBOA

Euskal Herrian 16 urte edo gehiagoko elebidunen % 26,6 *euskal elebidunak* dira: euskaraz erdaraz baino errazago moldatzen dira. Beste % 30,6 *Elebidun orekatuak* dira: berdin moldatzen dira euskaraz eta erdaraz. Azkenik, *erdal elebidunak* % 42,7: hobeto moldatzen dira erdaraz euskaraz baino. Gazteen artean *erdal elebidunak* beste bi elebidun motak batera baino gehiago dira: % 51,2 dira 2011n. (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2013: 25-27)

4. AZKEN GOGOETAK ETA AURRERA BEGIRAKO IRUZKINAK

Euskararen *transmisioa* zein *gaitasuna* zenbaitoak eta nolakoak diren arakatzeko ahale-gintan, zenbait definizio kontzeptual ezarekin egin dugu topo. Irtenbide moduan eta aintzat hartuz UNESCOk euskara *zaugarri* mailan sailkatu duela, gure lanaren ipartzat *Hizkuntza Indarberritze* (*HINBE*) prozesua hartu dugu, batetik, eta *sozializazioaren* paradigma maku-lu, bestetik. Hautu horren oinarrian dagoen axioma honakoa da: hizkuntza gutxitu bat osasuntsu irautea nahi bada, bere transmisioak gaitasuna eskuratzetik harago joan behar du, dimensio afektiboa eta identitarioa ere barne hartuz, horrela *hiztun* osoz osatua izan dadin. Hau da, euskarazko sozializazio osoa *HINBE* prozesua ongi elikatzeko.

Horretarako, lehen sozializazioan txertatzen den familia bidezko hizkuntza-transmisioa (H1) da euskarririk funtsezkoena. Balio bikoitz eta kontrajarriak ditu, gaur egun, euskararen transmisio mota horrek. Indarguneak hauek dira: familia bidezko transmisioa ia osorik betetzen dela bikote euskaldunengan eta, elebiduna bakarria denean askoz ahulagoa den arren, azken hamarkadetan gero eta hobeto ari dela bermatzen. Joera hori oso lagungarria da euskarazko *hiztun osoen* kopuruak berma daitezen. Ahuleziak: euskara H1 dutenak gutxiengoa baino ez izatea, horrek hizkuntzaren erabilera zein komunitatearen trinkotasuna ahuldu ditzakeelako.

Irakaskuntzak *HINBE* prozesuari egiten dion ekarpena baliotsua bezain mugatua da. Muga bat kuantitatiboa da: estimatu daiteke, EAEn, derrigorrezko hezkuntza bukaeran ikasleen heren bat inguru jo litekeela euskaraz ondo gaitutzat. Hala ere, D ereduaren pisua gorantz doa, arian-arian, baita lanbide heziketan ere. Kualitatiboki, H1 euskara dutenei irakaskuntzak laguntzen die hizkuntza horretan sakonago sozializatzen eta *hiztun oso* izaten. Bestalde, H1 beste hizkuntza bat dutenei euskarara hurbiltzeko aukera zabaltzen die, baina zaila dute *hiztun oso* soilik irakaskuntzaren bitartez

bihurtzea. Hortaz, euskara H1 beste hizkuntza bat dutenen kasuan bikoitza izan daiteke irakaskuntzaren ekarpena: batetik, euskararen *hiztun oso* ez direnen kasuan, maila horretara iristeko aukera gertu dute; bestetik, euskararen komunitateak halakoak bere baitara biltzea lortzen badu, *HINBE* erako *input* baliotsuak gerta litezke.

Irakaskuntzak, euskaraz sakonago sozializatzeko aukera eskaintzen du unibertsitatean, euskarazko adarrean. EAEn batez ere, heren batetik gorakoa da euskaraz ari diren ikasleen proportzioa eta, azken urteetan, erdia izatetik hurbil dabil ikastetxe batzuetan. Horietako gehienak euskarazko *hiztun osotzat* har litezke, seguru asko.

Bestalde, Helduen Euskalduntzeari dagokionez, EAEn erdaldun eta elebidun hartzaile guztietatik % 2,5 inguru da ikaskuntza mota horretara hurbildu dena. Mintzapraktika programa ere arrakasta du jarraitzen ari direnen artean, eta aurrekoaren osagarritzat jo daiteke euskarazko sozializazioa osatu eta *hiztun oso* bihurtzeko. Bi aukera horien ekarpena hauspo indartsua da *HINBE* erako.

Hiztunen kopuruei erreparaturik ere ari da *HINBE* prozesua bidea egiten. Batetik, euskaldunen galera eten da, euskara guztiz edo partez galdu dutenak gehienbat 50 urtetik gorakoak direlako. Aurrekoaren osagarri, euskara H2 dutenak 250.000 bat lagun dira, 2011n; 1991n baino 178.000 lagun gehiago. Horietatik euskararen irabaziak dira: *euskaldun berriak*. Alegia, bigarren sozializazioko irakaskuntzaren eta helduen euskalduntze zein mintzapraktikaren ekarpen garbiak. Hortaz, elebidunak gero eta gehiago direla EAEn eta Nafarroan. Iparraldean, aldiz, galerak daude oraindik, nahiz eta gazteen artean joera-aldaketa sumatu den.

Euskarazko *gaitasun erlatiboaren* gaiari erreparaturik gero, irakurketa anbibalente dugu, beste behin ere, *HINBE* ikuspegitik. H2 gisa sozializatu diren gehienek gaitasun eta erraztasun handiagoak izango dituzte gaztelaniaz euskaraz baino. Era berean, euskarazko hiztun-komunitatearen harreman-sareak eta kidesasun sentimenduak ahulagoak izan daitezke *eus-*

kaldun berri horiengan, betiere duten *hizkuntza-kontzientzia* motaren arabera. Baina beste askok, komunikazio-funtzio batzuetarako euskaraz gaitasun mugatua izan dezaketen arren, hizkuntza horren hiztun sareetan txertatzeko maila txukuna eta nahia izan ditzakete, seguru asko. Gazte elebidunen artean hain handia den *erdal elebidunen* proportzioa sozializazio mugatu horren ondorioa da.

Bestalde, kezkarria da euskal hiztunen komunitatearen muina diren udalerrien azken joera gorabeheratsua. Gune soziolinguistikoko euskaldunenean elebidunen beherakadaren iraupena ahulezia litzateke *HINBE* prozesurako.

Bukatzeko esan, *HINBE* ikuspegitik egin daitezkeen balantzea mehatxuz zein aukerez beteta dagoela. Ikuspegi estatiko batetik, egia da euskaldunak gutxiengoa direla oraindik eta horietako asko erdaraz gaituagoak daudela eta ez direla euskal *hiztun oso* izatera iristen; gainera, gazteen artean halakoak elebidunen erdia izan daitezke. Baina, *HINBE* prozesua ikuspegi dinamiko batetik ikusita, halakoek duten euskara maila ez-oso hori, mugak-mugak eta zailtasunak-zailtasun, euskara H2 gisa *irabazi* egin dute H1 erdara izatetik abiatuta eta bigarren sozializazioaren bitartez. Gakoa da elebidun horiek izango ote duten euskaraz sozializatzen jarraitzeko nahirik eta aukerarik. Baiezkoan, erraza dute *hiztun oso* bihurtzea eta, ondorioz, *HINBE* erako bulkada ematea; ezezkoan, erdara boteretsuen amaraun korapilatsuan geldituko dira tratatuta.



Erreferentzia bibliografikoak

- Aztiker. 2010. *Mintzapraktika egitasmoaren eraginkortasuna neurtzen, 2010. Eraitzen txosten nagusia*. Kultura Saila. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Berger, P. eta Thomas Luckmann. 1968. *La construcción social de la realidad*. Buenos Aires: Amorrortu.
- Commission of the European Communities. 2005. *The European Indicator of Language Competence*. Communication from the Commission to the European Parliament and the Council. Brussels, 1.8.2005 COM(2005) 356 final.
- Cooper, Robert. L. 1997. *La planificación lingüística y el cambio social*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Euskararen Aholku Batzordea, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. 2014b. *Ildo estrategikoen AMIA proposamenak*. Hizkuntza Aholku Batzordea. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- EUSTAT. 2011. *Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak*. Vitoria-Gasteiz: Eustat. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. 2013. *V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- ISEI-IVEI. 2005. *Euskararen B2 maila Derrigorrezko irakaskuntzaren amaieran (DBH-4)*. <http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/euskarab2-1.pdf>
- Kasares, Paula. 2013. *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Doktore Tesia. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika Saila.
- Martínez de Luna, Iñaki. 2013. Euskara EAEko hezkuntza sisteman. Irakurketa soziologikoa. In Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila eta Soziolinguistika Klusterra (Eds.). 2013. *Ikasleak Hiztun*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. (121-133)
- Moreno Cabrera, Juan Carlos. 2008. *El nacionalismo lingüístico. Una ideología destructiva*. Barcelona. Península.
- Sagarduy, Pablo (2009). EAEko euskararen belaunez belauneko transmisioa. In UdalTop Jardunaldia 2009. Lasarte-Oria. (azken kontsulta 2016-05-03)
- Soziolinguistika Eskuliburua*. 2010. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra.
- Soziolinguistika Hiztegia*. 2010. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.
- Unceta, Alfonso. eta A. Luna. 2012. 4. *Hezkuntza. EAEko Txosten Sozioekonomikoa, 2012*. Eustat. Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz.
- UNESCO. 2003. Language Vitality and Endangerment. *International Expert Meeting on UNESCO Programme Safeguarding of Endangered Languages*. Paris, 10–12 March 2003.
- UNESCO. 2010. *Atlas of the World's Languages in Danger*. UNESCO. Paris.
- Zalbide, Mikel. 2015. Joshua A. Fishman-en RLS edo HINBE. In Mikel Zalbide eta Xabier Erize: *Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko*. Hiznet Hizkuntza Plangintza Ikastaroa. Asmoz fundazioa eta Euskal Herriko Unibertsitatea (Graduondoko ikasketak).
- Zarraga, Arkaitz. 2010. Soziolinguistikari sarrera. In Arkaitz Zarraga et al.: *Soziolinguistika Eskuliburua*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra. (21-81).

Euskal herritarren portaera linguistikoen motibo subjektiboen bilakaera (1991-2016), eta aurrera begirako bideak*



Xabier Erize

Esker onak: Ricardo Feliú eta Carlos Vilches irakasleei haien laguntzagatik, batez ere soziologiarekin edo estatistikarekin lotutako gaietan.

1. HELBURUAK, KONTZEPTUAK ETA GAIARI BURUZKO LANEN EGOERA

Lan honen *helburuak* bi dira: (i) euskal herritarren portaera linguistikoen motibo subjektiboen bilakaera (1991-2016) aztertzea eta aurrera begirako bideak identifikatzea, bai hizkuntza-plangintzan bai ikerketan; eta (ii) herritarren motibo subjektiboak euskal ikerketa eta praktika soziolinguistikoan finkatzeko justifikazioan aurreratzea.

Euskal Herriko herritarren %55ek euskara sustatzearen aldeko jarrera badute eta herritarren %45ek ez badute aldeko jarrerarik, V. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera (Eusko Jaurlaritza, 2013); edo EAEko 13-14 urteko ikasleek (DBH2) gustukoago badute gaztelania (%71) euskara (%55) baino, Arrue ikerketaren arabera (Eusko Jaurlaritza, ISEI-IVEI eta Soziolinguistika Klusterra, 2012, 11. or.), nabarmena da euskararen sustatzaileek erronka handia dutela oraindik populazioaren borondatea irabazi nahi badute.

Nola justifikatu euskararen eta hizkuntza txiki-ertainen sustapena iritzi publikoaren aurrean? Oinarrizko galdera hau aspalditik dator eta irekita segitzen du gaur egun ere. Hori guztia, oro har, alde subjektiboen esparrua da.

Eraginkorra izan nahi badu, hizkuntza-plangintzaren gako nagusietako bat da herritarren portaera linguistikoen motibo subjektiboak sistematikoki ezagutzea eta kontuan hartzea,

herritar batek euskararen munduko erakunde eta kideei eska liezaiekeen bezala: "Nire motiboak ditut euskararen eta erdararen inguruan egiten dudana egiteko; galdetuko dizkidazue eta kontuan hartuko dituzue?" (Erize, 2014).

Gizarte erakundeez eta kausa sozialen sustapenez ari zirela, ideia bera esan zuten Philip Kotler-ek eta Peter Drucker-ek (Kotler, 1990) ere: aurrena da jakitea zein diren jendearen balioak; kontua ez da erakunde sustatzaileak jendearentzat garrantzitsua izan beharko litzatekeela uste duena esatea jendeari, baizik eta benetan jakitea zer den garrantzitsua jendearentzat, eta horretaz jardutea: "[In the non-profit organizations] you have to start out with knowing what the customers really consider value, what is important, before you communicate, rather than telling the things you believe should be important to the customer" (Kotler, 1990, 63. or.).

Motibo subjektiboei buruzko lanen egoera euskal soziolinguistikan. Lan asko egin dira euskal soziolinguistikan alde subjektiboen esparruan, eta balio handikoak. Baina, oro har, esan liteke euskal herritarren portaera linguistikoen motibo subjektiboak ezagutzeko eta aintzat hartzeko interesa bigarren mailan egon dela euskal soziolinguistikan (ikerketa mailan zein aplikazio edo aktibismo mailan ere), erabilera-ri edo gaitasunari eman zaien garrantziarekin alderatuta. Eta etorkizunean ere bigarren mailan segituko balu, hori eragozpen bat izango

* Testu hau BAT Soziolinguistika Aldizkariaren 99 zenbakian (2016) argitaraturiko txostenaren laburpena da, egileak berak egina.

litzateke hizkuntzaren sustapen lanetan, herritarren nahi, balio eta behar linguistikoak ongi ulertu eta aintzat hartu gabe nekez lortuko baita behar den eraginkortasuna. Adibide moduan, argigarria da Inkesta Soziolinguistikoein (adb.: Eusko Jaurlaritza, 2013) eta Mapa Soziolinguistikoein (adb.: Eusko Jaurlaritza, 2014) gertatzen dena, alde subjektiboak gehiago sakontzeko zein alde batera uzteko “gonbite” inplizituak aurkitzen ditugulako haietan.

Azkenaldian, berriz, norabide aldaketa eragin eta alde subjektiboak ere euskal soziolinguistikako lehen mailan finkatzen lagun dezaketen ekimen sendoak garatzen ari dira. Honako hauek adibidez:

- “Euskarak duen *Framing Berri* baten premia asetzeko proposamena” (Martínez de Luna, 2013).
- *Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen Lanketa (EGOD)*, EAE osoko biztanleriarekin Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate (2015 eta 2016) autoreek egin zuten ikerketa enpiriko berri eta konplexua, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren enkarguz Euskararen Aholku Batzordeko Euskara 21 Batzorde-atal Berezirako.
- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza *Eta hemendik aurrera zer?* (Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016) txostena, erdigunean herritarren nahia eta sentimendua jarri dituen: “‘Nahi’ izatea, ‘beharrezko eta gogoko’ sentitzea eta halatan hartzea: horra gako nagusiak”.

Lau kontzeptu giltzarri erabili dira lan honetan: *Ekintza soziala*, *Motiboa*, *Hautu linguistikoa* eta *Erresonantzia*. Lauak elkarrekin lotuta ulertzen ditut. *Ekintza soziala* Max Weber klasikoarengandik hartu dut: subjektuarentzat esanahi subjektiboa duen eta besteengana orientatuta dagoen giza portaera bat da: “una conducta humana (bien consista en un hacer externo o interno, ya en un omitir o permitir) siempre que el sujeto o los sujetos de la acción *enlacen* a ella un *sentido* subjetivo ... referido a la conducta de *otros*” (Weber, 1922/1993, 5. or.).

*Motiboa*¹ ere Max Weberrekin batera ulertzen dut: portaera edo ekintza sozialen esanahi edo zentzu subjektiboa da (Weber, 1922/1993, 10. or.). *Hautu linguistikoa* (edo hizkuntza-hautaketa, *language choice*) kontzeptuak, euskal soziolinguistikan gutxi landu bada ere, nazioarteko literatura soziolinguistikoa garrantzi handia du, eta, zehazkiago, Ralph Fasold (1984/1992) eta François Grin (1990, 1999, 2003) autoreekin ulertzen dut (Erize, 2013a): hiztunek hautuak egiten dituzte dakizkiten hizkuntzen zein barietateen artean, eta hautu horiek esanahi soziala dute: besteak beste, hautuen bidez hiztun komunitate baten edo bestearen balioekin lotuak izateko nahia adierazten dute hiztunek. Azken finean, Susan Ehrlich-ek (2016, 233. or.) dioenez, hizkuntza oso bat ere hornitua izan daiteke esanahi sozial eta kulturalaz. *Erresonantzia* kontzeptua Snow eta Benford-ekin (1988) ulertzen dut: kausa edo mugimendu sozial batek arrakasta lortzen du mugimenduak igortzen duen diskurtso edo markoa (balioak, ideiak, sinesmenak, ekintzak) herritarren motibo subjektiboekin (interesak, balioak, sinesmenak) lerrokatzen denean, biak norabide berean doazenean, eta bien artean erresonantzia berri bat sortzen denean, halako sintonia bat

¹ Hedaduraz, “motibo” terminoarekin batera portaera linguistikoen alde subjektiboak ditugu oro har, hala nola motibazioak, jarrerak, iritziak, esanahi subjektiboa, diskurtsoak, arrazoiak, balioak, ideologiak, mentalitateak, sinesmenak, irudikapenak, nahiak, interesak, sinpatiak, emozioak, sentimenduak, leialtasuna, pizgarriak, edo aurreiritziak: “The vocabulary associated with motivation is large; such terms as purpose, desire, need, goal, preference, perception, attitude, recognition, achievement, and incentive are commonly used” (Motivation, 2016).

Termino horiek gehienek ideia bat partekatzen dute: motibo subjektiboak portaeren inspiratzaile bezala ikustea. Ikus, adibidez, “jarrera”ren definizio klasikoa: “Ikasitako predisposizio bat, modu jakin batean pentsatzeko, sentitzeko eta jokatzeko pertsona (edo objektu) bati buruz” [“A learned predisposition to think, feel and behave towards a person (or object) in a particular way”] (Allport, 1954, aipatua in Erwin, 2001, 5. or.).

“Motiboa” kontzeptuak bi abantaila bat ditu, nire ustez, lan honen helburuetarako, aipatutako gainerako termino horien aldean: (i) argi erakusten du pertsonen, herritarren ezaugarri bat dela, ez dela kontzeptu abstraktu bat; eta (ii) termino haien definizioen arteko eztabaida nahasi eta maiz antzutik ateratzea ahalbidetzen digula.

sortzen denean. Diskurtso edo markoek arrakasta izan eta erresonantzia positiboak lortzen badituzte, adostasun berri bat zabaltzen da gizartean eta, horrela, mugimenduak aldeko pertsonak mobilizatzea, neutroak irabaztea eta aurkariak desmobilizatzea lortzen du. Erresonantzia edo sintonia positiborik ez bada sortzen, berriz, kausa sozial horrek ez du arrakasta handirik lortzen, edo bakarrik populazioaren segmentu jakin batzuetan lortuko du.

Gizarte zientzietan ikuspegi desberdinak daukela jakinik ere, ni neu, lan honetan, giza ekintzak motibatua eta esanahiaz hornitua bezala ikusten dituen eta alde subjektiboak aintzat hartzen dituen *ikuspegi interpretatzailean* kokatu naiz batez ere (Erize, 1997; Neuman, 1997), hori gertatzen zait argigarriena eta, gainera, berritzaileena euskal soziolinguistikarako. Halaber, subjektuen agentzia (*agency*) (= ekintzak eta hautuak bere kabuz egiteko ahalmena) eta gizarte egiturak batera eta kontrajarri gabe aztertzen dituen ikuspegian kokatu naiz, ez baldintza sozialen determinismoan.

Lanak *metodologia* mistoa izan du. Alde bate-tik, gaiari buruzko orain arteko literaturaren hustuketa eta ebaluazio kritikoa egin dut, eta informazioa, kuantitatiboa zein kualitatiboa, orain arteko inkesta edo ikerketetatik hartu dut gehienbat. Bestetik, etorkizunari begirako eztabaida (4. atala) bi proiektiotan oinarritu dut, erreferentziako eszenario plausible bat hartuta, oso garrantzitsua iruditzen zaidalako aurrera begira bilakaeraren zenbaki objektiboetan oinarrituta eztabaidatzea, eta nahiak eta errealitate posiblea bateratzen saiatzea.

2. ZER GERTATU DA?: HERRITARREN PORTAERA LINGUISTIKOEN MOTIBO SUBJEKTIBOEN BILAKAERA (1991-2016)

“Zer gertatu da herritarren portaera linguistiko-koen motibo subjektiboekin (1991-2016)?” galderak erantzun konbinatu bat du:


- Inkesta Soziolinguistikoko jarrerari buruzko informazioak.
- Hautu linguistikoak praktikan: Hezkuntza-eredu linguistikoaren hautaketaren bilakaera.
- *Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen Lanketa (EGOD)* laneko informazioak.

2.1. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOKO JARREREI BURUZKO INFORMAZIOAK

Inkesta Soziolinguistikoa (1991tik 2011ra egin diren 5 edizioetan) eskaintzen dituzten datu aberatsetatik, bi informazio nagusi nabarmenduko dira lan honetan: (i) Jarrerak, Gaitasuna eta Erabilera atalen bilakaera elkarrekin jarrita; eta (ii) Euskara sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera xehatua.

2.1.1. Jarrerak, Gaitasuna eta Erabilera atalen bilakaera elkarrekin jarrita

Oso argigarria da euskara sustatzeari buruzko jarrerak, euskarazko gaitasuna eta euskararen erabilera atalen bilakaerak, hiruak batera grafiko batean islatzea:



- Jarrera: alde + oso alde
- Gaitasuna: elebidun + hartzaile
- Erabilera: euskaraz gehiago + berdin + gutxiago

Egilea: Xabier Erize. Datuen iturria: Eusko Jaurlaritza, 2013, eta EUSTAT, 2016a eta c.

Harreman handia dago euskara sustatzearen aldeko jarreraren, gaitasunaren eta erabileraren artean, grafikoan ikusten denez. Hiruen kurbak ia paraleloak dira, eta, EGOD ikerketan (Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate, 2016, 24. or.) esanenez, pentsa liteke euskara sustatzeari buruzko jarrerak sabai funtzioa egiten dutela gaitasuna eta horren menpe dagoen erabilerari haz daitezen. Alegia, jarreraren kurbak gorago egingo balu, gaitasunaren eta erabileraren kurbek "espazio" edo "oxigeno" gehiago izango lukete haiek ere gorago egiteko. Aldiz, jarrerak gorago egin gabe, nekez egingo lukete gorago gaitasunak edota erabilerak, ez bada egungo baloreen halako optimizazio bat. Beraz, horrek guztiak erakusten digu jarrerak (motibo subjektiboak, oro har) ikertzea garrantzi handikoa dela, berez, eta baita gaitasunari eta erabilerari begira ere.

Hona hemen grafikoari oinarria ematen dion taula:

1. taula:
Jarrera - Gaitasuna - Erabilera (EH osoa) (%).


	1991	2011
Jarrera: alde + oso alde	46	55
Gaitasuna: elebidun + hartzaile	30	42
Erabilera: euskaraz gehiago + berdin + gutxiago	22	29

Egilea: Xabier Erize. Datuen iturria: Eusko Jaurlaritza, 2013 eta EUSTAT, 2016a eta c.

2.1.2. Euskara sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera

Oraingoan, euskara sustatzeari buruzko jarreraren bilakaeraren xehetasun batzuk emango dira. Herritarren portaera linguistikoen motibo subjektiboen bilakaera kuantitatiboa (1991-2011) ondoko grafikoan jasotzen da:

2. grafikoa:
Euskara sustatzeari buruzko jarrerak (EH osoa) (1991-2011)



Egilea: Xabier Erize. Datuen iturria: Eusko Jaurlaritza, 2013 eta EUSTAT, 2016c

V. Inkesta Soziolinguistikoa araberak (Eusko Jaurlaritza, 2013), Euskal Herri osoko herritarren erdiek baino gehiagok (%55) euskara sustatzearen aldeko jarrera dute, motibo subjektiboak dituzte euskararen sustapenari baiezkota esateko; eta ia beste erdiek (%45) ez dute aldeko jarrerarik, ez dute motibo subjektiborik sentitzen euskararen sustapenari baiezkota esateko. Euskararen sustatzaileen ohiko erronkak bi baldin badira (batetik, lortutako aldekatasunei eustea, eta, bestetik, herritar gehienek onespenera lortzea), azkeneko 20 urtean aldekatasunei eustea lortu da, eta %9 gehiago igotzea ere bai (%0,45eko igoera urte bakoitzeko), baina oraindik herritarren %45en onespenera eskuratzeko geratzen da. Nabarmena da datu horien grafikoak, hazkundera baino gehiago, meseta itxura duela ia-ia, erakunde baten bizi-zikloan "helduaro egonkorra" bezala uler litekeena.

Taula batean, hauek dira jarreraren grafikoko zenbakiak:

2. taula:
Euskara sustatzeari buruzko jarrerak (EH osoa) (1991-2011) (%).


	1991	1996	2001	2006	2011
Oso alde + Alde	46	46	45	57	55
Ez alde ez aurka	30	36	35	26	28
Oso aurka + Aurka	24	18	20	16	17

Egilea: Xabier Erize. Datuen iturria: Eusko Jaurlaritza, 2013 eta EUSTAT, 2016c.

2.2. HAUTU LINGUISTIKOAK PRAKTIKAN: HEZKUNTZA-EREDU LINGUISTIKOEN HAUTAKETAREN BILAKAERA

Motibo subjektiboen aldetik, garrantzi handikoa da hezkuntza-eredu linguistikoaren hautaketaren bilakaera, herritarrek, hezkuntza-eredua hautatuta, haien nahi eta balio linguistikoak (zein etorkizun linguistiko nahi duten euskal gizarterako) adierazi eta portaera bihurtzen dituztelako, norbanako zein talde mailan, 1. atalean ikusi bezala. Eta hori guztia oso modu hausnartuan egiten dute, erabaki horrek ondorio handiak dituelako seme-alaben etorkizunean.

Hona hemen "Hautu linguistikoak praktikan: Hezkuntza-ereduak (EAE) (1983-2014)" grafikoa eta taula:



Egilea: Xabier Erize. Datuen iturria: EUSTAT, 2016b.

Hauk dira grafikoko datuak taula batean jasota:

3. taula:

Hautu linguistikoak praktikan: Hezkuntza-ereduak (EAE) (1983-2014)

	1983	1991	1996	2001	2006	2011	2014
D eredu	14	22	32	43	50	58	62
A eredu	64	60	49	36	28	22	20
B eredu	8	17	17	21	21	20	18
X eredu	14	1	1	1	1	1	1

Egilea: Xabier Erize. Datuen iturria: EUSTAT, 2016b.

Grafikoan eta taulan ikustenenez, gaur egun EAEko hezkuntza ez-unibertsitarioko ikasle gehienek euskarazko D ereduaren ikasten dute, hau da, nahi eta balio linguistikoaren aldetik euskal hiztun komunitatearen erreferentzia hautatzen dute haiek edota haien familiek. D ereduaren aldeko hautuak igoera nabarmena izan du 1983. urtetik (%14) 2014.era arte (%62). B eredu mistoaren (euskaraz + gaztelania) hautuak ere igoera izan dute (%8tik %18ra). A ereduaren (euskaraz ikasgai bezala, gainerakoa erdaraz) aldeko hautuak, berriz, jaitsiera nabarmena izan dute 1983. urtetik (%64) 2014.era arte (%20).

Halaber, koherentzia handia dago EAEn euskarazko ereduaren hautaketaren (%62 D eredu, + %18 B eredu) eta euskara sustatzearen aldeko jarreraren artean (%62). Alegia, portaeren eta jarreraren artean koherentzia nabarmena agertzen da kasu honetan, nahiz eta batzuetan leporatzen den disonantzia gertatzen dela herritarren jarreraren eta portaeren artean, kasu honetan errealitatearekin bat ez datorrena.

2.3. EUSKARAREN GAINEKO OINARRIZKO DISKURTSOEN LANKETA (EGOD) LANEKO INFORMAZIOAK

1991-2016 epealdian nagusi izan diren diskurtsuoen berri, zein 2015ean nagusi ziren elementu diskurtsuoen ezaugarriak, *Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsuoen Lanketa (EGOD)* (Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate, 2015 eta 2016; eta Hizkuntza Politi-

karako Sailburuordetza, 2016) ikerketak esan dizkigu:

- ▶ Diskurtso egituratu nagusiak, 1991-2016 epean.
 - Euskara sustatzeko adostasun soziopolitiko instituzionalaren diskurtsoa.
 - Diskurtso kritiko bat, gutxiegi egiten delako.
 - Diskurtso kritiko bat, gehiegi egiten delako.
- ▶ Herritar gehienek (bi heren gutxienez, %66tik gora) partekatzen dituzten ideia linguistikoak: Zoru Komuna. Hona hemen horietako batzuk:
 - Euskararen, gaztelaniaren eta ingelesaren garrantzi bateragarria.
 - Euskaldunen eta erdaldunen arteko errespetua, bakoitzaren hautu linguistikoak onartuta.
 - Euskararen garrantzi praktikoa gaur egungo gizartean.
 - Euskararen presentzia etorkizunean handitzeko nahia.
- ▶ Herritar elebidunek (euskara + gaztelania) eta erdaldunek desberdin baloratzen dituzten ideia linguistikoak.
 - Euskal Herriko hizkuntza propioa(k) zein d(ir)en, iritzi desberdina dute:
 - Elebidunek: euskara da Euskal Herriko hizkuntza propio bakarra (%60).
 - Erdaldunek: biak, gaztelania + euskara, dira Euskal Herriko hizkuntza propioak (%74).
 - “Euskara jakitea ezinbestekoa da herri honetako kide osoa sentitu ahal izateko” ideiar buruz, iritzi desberdina dute:
 - Elebidunak: ados (%72).
 - Erdaldunak: aurka (%58).
 - Identifikazio pertsonaleko hizkuntza desberdina dute:
 - Elebidunek: euskara (%62) edo biak (%18).
 - Erdaldunek: gaztelania (%89) edo biak (%5).

Informazio honen inplikazioak 3. eta 5. atalean aipatzen dira.

3. ZERGATIK GERTATU DA HERRITARREN PORTAERA LINGUISTIKOEN MOTIBO SUBJEKTIBOEN BILAKAERA (1991-2016) HORI?

Oinarrizko erantzuna hau da: herritarrek hala nahi izan dutelako, herritarren nahia hori izan delako ditugu datu horiek, euren motibo subjektiboak izan dituztelako. Herritarrek dira euren motibo soziolinguistikoaren subjektua, nahiz eta maiz ahaztuta geratzen den ideia hau euskal soziolinguistikan.

Bigarren erantzun bat ondokoa izan liteke. Jende eta erakunde askok, instituzionalak zein ekimen sozialekoak, ikaragarriko lana egin dute euskara sustatzeko. Gai batzuetan erresonantzia positiboak gertatu dira herritarren motiboen eta euskararen sustatzaileen mezuen artean, eta beste batzuetan euskararen sustatzaileek ez dute erresonantzia positiborik lortu herritarren artean. Pentsa liteke euskararen sustapenak euskal gizartean erresonantzia positiboak lortzeko aukera handiagoa izan duela herritar gehienek partekatzen dituzten ideia linguistikoaren markoan garatu denean, bakarrik herritar elebidunek hobesten dituzten ideien markoan garatu denean baino. Baina, aldi berean, nabarmentzekoa da azken ideia hauen eraginkortasuna elebidunen segmentua aktibatzerakoan.

Gainera, kontrako joera edota aktore sozialak ere egon dira, eta haiek ere eragina izan dute herritarren motibo subjektiboen bilakaeran.

Herritarren motibo subjektiboen bilakaeraren zergatiak ulertzeko argigarria da Euskararen Aholku Batzordeak motibazioen eta jarreraren esparruan identifikatu zituen Indarguneak, Ahuleziak, Aukerak eta Mehatxuak (AMIA azterketa) (Euskararen Aholku Batzordea, 2015) kontuan hartzea, faktore horiek baitira bilakaeran eragina izan dutenak. Lan honen txosten osoan jasota daude, baina ezin izan dira laburpen honetara ekarri.

4. ZER GERTA LITEKE ORO HAR, MOTIBO SUBJEKTIBOEI DAGOKIENEZ, DATOZEN HOGEI URTEAN?

4.1. HERRITARREK NAHI ETA SENTITZEN DUTENA GERTATUKO DA

Lehen ideia hau da: herritarrek nahi eta sentitzen dutena gertatuko da euren motibo linguistiko subjektiboekin. Herritarrak dira subjektua, 3. atalean ere esan bezala.

4.2. PROIEKZIOAK

Proiekzioak joera demolinguistikoak zein Euskararen Aholku Batzordeak (2015) identifikatutako Indarguneak, Ahuleziak, Aukerak eta Mehatxuak (AMIA azterketa) datozen urteotan berdintsu mantendu litezkeelako eszenario plausiblean egin dira, euskararen aldeko tentsioari eutsiko zaiola, alegia.


Proiekzioak bi hauek dira: (i) Euskara sustatzeari buruzko jarrerak (EH osoa): 1991-2011 bilakaera erreala, eta 2036 arteko proiekzioa, nik neuk egin; eta (ii) Hautu linguistikoak praktikan: Hezkuntza-ereduak (EAE): 1983-2014 bilakaera erreala, eta 2036 arteko proiekzioa, *Eta hemendik aurrera zer?* (Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016) dokumentutik hartua. Argi eduki behar da proiekzioak, etorkizunerako aurreikuspenak izateaz gain, eragileen ekintzarako deia bezala ikusten direla lan honetan, euskararen aldeko tentsio soziala lantzeko.

4.2.1. Euskara sustatzeari buruzko jarreraren proiekzioa

2036. urterako nire proiekzioaren arabera, Euskal Herri osoan aldeko jarrerak %55etik %66ra igaroko lirateke.

4. grafikoa:

Jarrerak (EH osoa): 1991-2011 bilakaera erreala, eta 2036 arteko proiekzioa (%)




Egilea: Xabier Erize. Datuen iturria [1991-2011]: EUSTAT, 2016c.

4.2.2. Hautu linguistikoak praktikan: Hezkuntza-ereduen proiekzioa

Proiekzioaren arabera, herritarrek euskarazko hezkuntza-ereduak eta, horrekin batera, balioen aldetik euskal hiztun komunitatearen erreferentzia (ikus 1. eta 2.2. atalak) aukaritzen segituko lituzkete datozen 20 urtean, eta igoera nabarmena izango luke euskarazko D ereduak: %81 izateraino. A ereduak, berriz, jaitziera nabarmena izango luke, %2 izateraino.

5. grafikoa:

Hautu linguistikoak praktikan: Hezkuntza-ereduak (EAE) (1983-2014 bilakaera erreala, eta 2036 arteko proiekzioa)



Egilea: Xabier Erize. Datuen iturria: EUSTAT, 2016b, eta Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016.

5. ONDORIOAK ETA EZTABAIDA

Ondorio nagusia da herritarrek *euren motibo subjektiboak* dituztela euskararekin eta erdararekin egiten dutena egiteko. Eta *proposamen* nagusia da euskararen sustatzaileek kontuan hartu behar dituztela herritarren motibo subjektiboak: hizkuntza-politikan, plangintzan, lan praktikoan, aktibismoan zein ikerkuntzan. Ez dira aurreuposatu behar. Galdetu behar zaizkie herritarrei, modu sistematikoan (bide asko egon daitezke: ikerketa zientifiko konplexuak edo euskarazko zerbitzuen bezeroen asebetetze inkesta xumeak, zein tarteko aukera guztiak).

Hiztunen motibazio linguistikoetan goitik-beherako prozesuen bidez eragitea ez da erraza; eta portaeretan eragitea ere, batez ere portaera ez-formaletan, ez da erraza (eta are gutxiago autoritate baten aginduz). Funtsean, hiztunak beraiek dira sentitzen eta egiten dutenak (testuinguru batean, noski). Gakoa sustatzaileen eta herritarren artean erresonantzia positiboak lortzea da, lan honetan esaten ari denez.

Halaber, Ofelia García ikertzailearen iritziz (2015), hizkuntza-politikaren edo plangintzaren esparruan goitik-behera eragitearen ikuspegiarekin jarduteko joera egon bada ere, azkenaldian kolokan jartzen ari da komunitatearen hizkuntza portaerak autoritatez jantzi-tako erakundearen eraginez aldatuak edota planifikatuak izan daitezkeenik: “scholarship has challenged the idea that a community’s way of speaking could be planned and changed by authoritative agencies” (García, 2015, 353. or.). Trukean, hiztunen agentzia nabarmentzen duen eta askotariko testuingurua kontuan hartzen duen ikuspegi dinamikoago bat nagusitzen ari da Ofelia Garcíaaren arabera: “The line of power is not always linear from top to bottom since speakers have agency and language policy interacts with ideologies, global, national, and local forces. This more dynamic view of language policy...” (García, 2015, 355. or.).

Hori esanda, argi utzi nahi dut posible eta desiragarria iruditzen zaidala euskararen sustatzai-

leek lan aktiboak egitea, noski, azken hamarkadetan egin den moduan, eta txosten honetan ere agertzen ari denez. Azken finean, kontua da 3. atalean aipatutako AMIAko faktore positiboak (Indarguneak eta Aukerak) areagotzea, eta faktore negatiboak (Ahuleziak eta Mehatxuak) indargabetzea.

Ondorengo lerroetan “Zer komeni da egitea motibo subjektiboaren esparruan?” galderari erantzuten saiatuko naiz. Bi atal bereiziko dira: (i) sustatze lanari dagozkion gaiak, eta (ii) ikerketa berriei dagozkienak:

Zer komeni da egitea sustatze lanari dagokionez?

- Komeni da ulertzea herritarrek, hiztunek, portaera linguistikoak dituztela, hautaketak egiten dituztela eta motibo subjektiboak dituztela horiek egiteko, testuinguru soziala ere badagoela ahaztu gabe. Alegia, onartzea jendeak, herritarrek, euren motiboak dituztela euskararekin eta erdararekin egiten dutena egiteko.
- Komeni da euskararen aldeko giro positiboa zein aukera linguistikoaren arteko berdintasuna bultzatzea eta elikatzea. Giro positibo hori sortzeko egokiena izan daiteke herritar gehienek partekatzen dituzten Zoru Komuneko (ikus 2.3. atala) balioetatik jardutea, bai neurri praktikoak hartzerakoan bai bisioak edo mezuak zabaltzerakoan.
 - Erakargarritasun positibo hori berdintasuna benetan defendatzen eta ohiko ereduak kualitatiboki gainditzetik etorriko litzateke, Sánchez Carrión “Txepetx”en ustez: inork ez du euskararen normalizazioaren beldur izan behar, diskriminazio berri bat dakarrela pentsatuz: “lo que esta Teoría propone no es mayorizar la lengua minoritaria, minorizando a la mayoritaria, términos a los que la perspectiva estatalista —de uno y otro signo— intenta llevar reiteradamente el problema” (Sánchez Carrión “Txepetx”, 1999, 282. or.)
 - Soilik elebidunek babesten dituzten balioren bisiotik (ikus 2.3. atala) aritzearekin,

ordea, kontuz ibili! Bisio edo balio horiekin bat ez datozen herritarrak, herritar gehienak, alegia, nekez hurbilduko dira euskarara, edo urrundu egingo dira. Berdin erdaldunek bakarrik dituzten balioetatik arituz gero.

- Komeni da gogoan izatea derrigortasun, arautze edo lege kontzeptuak eztabaidatuak bezain gatazkatsuak direla, bereziki lanpostuen esparruan, eta neurri batean eztabaida horiek hizkuntza-politikaren zilegitasuna ere auzian jartzeraino iritsi litezkeela. Horrek inplikazioak ditu herri-administrazioen jarduerari begira, beren zereginetako bat arauak eta neurri zehatzak bultzatzea eta betearaztea baita. Zilegitasun sozialik gabeko derrigortasun, arautze edo legeen ondorioz, diskriminazioaren sentimenduak --euskaldunena zein erdaldunena-- erraz erabili daitezke administrazioekiko susmoa areagotzeko.

Zer komeni da egitea ikerketa berriei dagokienez?

Hizkuntza-politika eta hizkuntza-plangintza gizartearen taupadetatik aldendu ez daitezzen, ikerkuntza soziolinguistikoak berebiziko garrantzia dauka. Gutxiago dakigu alde subjektiboari buruz objektiboari buruz baino. Hona hemen ideia batzuk ikerketa berriei begira:

- Alde subjektiboak finkatzea ikergai bezala: "Herritarrek gaitasun maila hau dute, erabilpen maila hau dute, eta motibo subjektibo hauek adierazten dituzte hori egiteko". Hainbat bide izan litezke hori egiteko:
 - Inkesta Soziolinguistikoei "zuku" gehiago ateratzea alde subjektiboen aldetik: txosten nagusietan, laburpenetan zein dibulgazioan.
 - "Jarrerak" ere Mapa Soziolinguistikoetan sartzea hemendik aurrera.
 - Herritarren diskurtso linguistikoei buruzko *EGOD* (Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate, 2015 eta 2016) ikerketaren modukoak periodikoki egitea, baita Nafarroan eta Iparraldean ere.

- Herritarren motibo edo balio linguistikoak ikertzea eta kontuan hartzea hizkuntza-politikak edo sustapen lanak egiterakoan (publikoak zein sozialak edota indibidualak): benetan jakitea zer den garrantzitsua jendearentzat, eta horretaz jardutea. Gogoan izan: "Nire motiboak ditut euskararen eta erdararen inguruan egiten dudana egiteko, galdetuko dizkidazue eta kontuan hartuko dituzue?".

- Euskararen hizkuntza-politikari dagokionez, derrigortasun, arautze edo lege kontzeptuek herritarren artean duten interpretazioa eta lortzen duten adostasun edo ezadostasun maila sakonki ikertzea, oso eztabaidatuak daudelako. Gai hau lan-munduen eta lanpostu-eskaintzaren esparruetan argitu beharko litzateke bereziki, baina baita hezkuntza munduan ere.

- Hizkuntzekiko positiboa den teoria demokratiko aurreratu batean eta bere aplikazioan sakontzea. Kontuan izan herritarrei buruz ari garela (ikus Erize, 2013b).

- Ikerketarako eta gogoetarako giro irekia sustatzea, ortodoxiatik ateratzea zigortzen ez duena, euskal soziolinguistikaren mundura hurbiltzen direnek giro ireki abegikorra aurki dezaten.

- Gertuko gizarte-diziplinetatik edatea:

- Antropologia, Soziologia, Psikologia, Pedagogia, Filosofia...
- Populazioarekin sustatze lanak egiten eskarmentu handia duten beste alor batzuetako kontzeptuak eta metodologiak aztertzea eta euskal soziolinguistikara berregokitzea: adibidez, Osasun Publikoaren Sustapenaren alorrekoak, edota enpresa eta erakundeen mundukoak.

- Honelako ezaugarriak dituzten ideiak lantzea, oro har: koherentzia etikoa, zorrotasun intelektuala eta errealitatearekiko egokitasuna dituztenak, eta herritarrengan erresonantzia positiboak aktibatzen dituztenak.



Erreferentziak

- Ehrlich, Susan. 2016. "«Sociolinguistic» dimensions of discourse analysis". *Journal of Sociolinguistics*, 20/2, 229-240.
- Erize, Xabier. 1997. *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936): soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Erize, Xabier. 2013a. "Management-eko kontzeptuak eta hizkuntza-plangintza". *Euskera*, 58(1), 89-146.
- Erize, Xabier. 2013b. "'Zergatik erosi beharko nuke euskara?'". *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 86, 99-109.
- Erize, Xabier. 2014, urtarrila. «Nire motiboak ditut euskararen eta erdararen inguruan egiten dudana egiteko; galdetuko dizkidazue eta kontuan hartuko dituzue?». Euskaltzaleen Topaguneak antolatutako XI. jardunaldian (Topaldia) egindako aurkezpena, Durango.
- Erwin, Phil. 2001. *Attitudes and Persuasion*. East Sussex (EB) eta New York, NY (AEB): Psychology Press-Taylor & Francis Group. Hemen eskuratua: http://samples.sainsburysebooks.co.uk/9781317724766_sample_842482.pdf
- Euskararen Aholku Batzordea. 2015. *Euskara Sustatzeko Ekintza Plana. Diagnostikoari buruzko AMIA dokumentuarekin osatua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.
- Eusko Jaurlaritzak. 2013. *V. Inkesta Soziolinguistikoa. 2011*. Vitoria-Gasteiz: egilea. Hemen eskuratua: http://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/ikuspegi_sozio_linguis.html
- Eusko Jaurlaritzak. 2014. *V. Mapa Soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz: egilea.
- Eusko Jaurlaritzak. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. 2016. *Eta hemendik aurrera zer?* Vitoria-Gasteiz: egilea.
- Eusko Jaurlaritzak, ISEI-IVEI eta Soziolinguistika Klusterra. 2012. *Arrue proiektua. Ebaluazio Diagnostikoa 2011: ikasleen hizkuntza erabileraren datuak*. L.g.: autorea. Hemen eskuratua: http://www.sociolinguistika.org/files/ED2011_Emaitza_nagusien_txostena.pdf
- Eustat. 2016a. *Euskal AEko >=2 urteko biztanleria per lurralde eremua, euskara-maila eta aldia*. Hemendik eskuratua: http://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/euskara/-/PX_3671_ne02.px/table/tableViewLayout1/?rxid=d711fc79-831f-4cdd-b282-4feb76ad0f69#axzz41YsPOOzC
- Eustat. 2016b. *Euskal AEko erregimen orokorreko unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak eta irakaskuntza-taldeak, udalerrri, zentroaren titulartasun, irakaskuntza-maila, hizkuntza eredu eta ezaugarrien arabera*. Hemendik eskuratua: http://www.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/euskara/-/PX_2320_mun01.px/#axzz421liuNM3
- Eustat. 2016c. *Euskal Herrian euskararen erabileraren sustapenarekiko jarrera (>= 16 urte), lurraldeari jarraiki. 1991-2011*. Hemendik eskuratua: http://eu.eustat.eus/elementos/ele0009500/ti_euskal-herrian-euskararen-erabileraren-sustapenarekiko-jarrera--16-urte-lurraldeari-jarraiki/tbl0009576_e.html#axzz4B1VJL76b
- Fasold, Ralph. 1992. *The Sociolinguistics of Society*. Oxford (EB): Blackwell. (Jatorrizko edizioa: 1984).
- García, Ofelia. 2015. "Language Policy". In *International Encyclopedia of the Social & Behavioral Sciences, 2nd edition*, Vol 13, 353-359. or. Hemen eskuratua: <https://ofeliagarciaadotorg.files.wordpress.com/2011/02/languagepolicy.pdf>
- Grin, François. 1990. "The Economic Approach to Minority Languages". In D. Gorter, et al. (Ed.), *Fourth International Conference on Minority Languages* (153-174. or.). Clevedon: Multilingual Matters. Hemen eskuratua: <http://books.google.es/books?id=HYShm6Q-lkEC&pg=PA153&lpg=PA153&dq=The+economic+approach+to+minority+languages+grin&source=bl&ots=NR3KUQPcLy&sig=VCxOM-rSGXAY8qULJbYen1x-FsrM&hl=es&sa=X&ei=mxwhUNeuCYqFhQePioC4Cg&ved=0CFgQ6AEwAQ#v=onepage&q=The%20economic%20approach%20to%20minority%20languages%20grin&f=false>
- Grin, François. 1999. "Economics". In Joshua A. Fishman (Ed.), *Handbook of Language and Ethnic Identity* (9-24. or.). New York: Oxford University Press.

- Grin, François. 2003. "Language Planning and Economics". *Current Issues in Language Planning* 4(1), 1-66. or. Hemen eskuratua: <http://uk-online.uni-koeln.de/remarks/d5134/rm2169321.pdf>
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. 2016. *Euskararen gaineko diskurtso partekaturako zoru komunaren oinarriak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.
- Kotler, Philip. 1990. "Defining the Market" [elkarriketa]. In Peter F. Drucker, *Managing the non-profit organization* (55-63. or.). London: Butterworth-Heinemann.
- Martínez de Luna, Iñaki. 2013. "Euskarak duen Framing Berri baten premia asetzeko proposamena". *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 86, 13-83.
- Martínez de Luna, Iñaki, Xabier Erize, Beatriz Akiizu, Josune Etxaniz eta Amaia Elizagarate. 2015. *Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen Lanketa (EGOD egitasmoa)*. Eranskinak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren enkarguz Euskararen Aholku Batzordeko Euskara 21 Batzorde-atal Berezirako egindako ikerketa). L.g.: Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Euskararen Aholku Batzordea.
- Martínez de Luna, Iñaki, Xabier Erize, Beatriz Akiizu, Josune Etxaniz eta Amaia Elizagarate. 2016. *Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen Lanketa (EGOD egitasmoa)*. *Emaitza txostena* (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren enkarguz Euskararen Aholku Batzordeko Euskara 21 Batzorde-atal Berezirako egindako ikerketa). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Euskararen Aholku Batzordea.
- "Motivation". 2016. In *Oxford Reference*. Hemen eskuratua: <http://www.oxfordreference.com/view/10.1093/oi/authority.20110803100212318>
- Neuman, William L. 1997. *Social Research Methods* (3. ed.). Needman Heights (MA, AEB): Allyn & Bacon.
- Sánchez Carrión, José María "Txepetx". 1999. *Márgenes de encuentro. Bilbao y el euskara*. Bilbo: Ayuntamiento de Bilbao.
- Snow, David A. eta Robert D. Benford. 1988. "Ideology, Frame Resonance, and Participant Mobilization". In Klandermans, Bert, Hanspeter Kriesi eta Sidney Tarrow (Ed.), *International Social Movement Research* (197-217. or.). Greenwich (CT, AEB) eta London (Britainia Handia): Jai Press Inc. Hemen eskuratua: <https://eee.uci.edu/10w/69800/home/snowbenford.PDF>
- Weber, Max. 1993. *Economía y sociedad*. Madril: Fondo de Cultura Económica (1. edizioa, alemanez: 1922).

Mintzajardunaren egoera eta azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak*

Mikel Zalbide

1. KONTZEPTU-ARGITZEA

Lanaren xedea gogoan izanik, eta irakurleen lagungarri, zenbait kontzeptu eta zenbait termino tekniko argitu behar izan da. Kontuan hartzekoak dira, batez ere, zazpi definizio operatibo hauek:

- ▶ **EUSKAL HIZTUNA.** Euskaraz egiten duena da *euskal hiztun*, ez euskaraz dakien edonor. Euskaraz asko, erdizka, gutxi edo oso gutxi egin dezake *euskal hiztun* horrek.
- ▶ **EUSKARAREN ERABILERA, EUSKARAZKO JARDUNA.** Hiztun-kopurua eta hiztunen erabilera-maiztasuna biltzen dituen formulazioa.
- ▶ **MAIZTASUN-MAILAKETA.** Bosteko mailaketa aukeratu da: *E4* (euskaraz erdaraz baino gehiago), *E3* (euskaraz erdaraz beste), *E2* (euskaraz erdaraz baino gutxiago), *E1* (oso gutxi euskaraz) eta *E0* (beti erdaraz). Zati-banatze boskoitz horri *erabilera trinkoa (ET)* erantsi zaio¹: $ET = E4 + E3$.
- ▶ **ALDAKORTASUN-ITURRIAK.** *non geografikoa* (lekua); *non soziofuntzionala* (jardungunea: etxea, lagunartea, kalea, eskola, lantegia, administrazioa,..); *nor-norekikoa* (rol-harremanak); *adierazpidea* (hitzezko jar-

duna, irakurrizkoa, idatzizkoa); estiloa; *hiztunen* (inoiz solaskideen) *adina*.

- ▶ **DIMENTSIOAK.** Honela egin da analisisa: hiru esparru geoadministratibo (*EAE, Nafarroa, Iparraldea*); bederatzi lurralde-eremu: EAEn *Araba, Bizkaia* eta *Gipuzkoa*; Nafarroan *euskal eremua, bietarikoa* eta *erdalduna*; Iparraldean *Baiona-Angelu-Miarritze herriartea* (laburduraz *BAM*), *Lapurdikoko barnealdea* (laburduraz *LB*) eta, azkenik, *Nafarroa Beherea* eta *Zuberoa* (laburduraz *NBZ*).
- ▶ **BELAUNEZ BELAUNEKO JARRAIPENA** (*bbj*). Gauza bi dira *belaunez belauneko jarraipena* eta *seme-alabei etxean hizkuntza horretan egitea*. Sozializazio zabalaren altzoan gertatzen da: etxea, eskola, lantokia, lagunartea, bikotea. Oro har 35 bat urterekin burutzen da (Veltman, 1983).
- ▶ **ARNASGUNEAK.** J. A. Fishman-en "*physical breathing space*". Ezaugarriok izan dituzte *arnasguneak*, luzaro: euskaldunen kontzentrazio handia, askotan eskualde osora hedatua; trasbase demografiko murrizta; garraiobide nagusietatik, orobat industrialde eta merkataritza-gune handietatik, urrun(sko); hurbileko harreman-sareak, maiz aurrez aurrekoak², nagusi; euskara jaun eta jabe etxean eta herri-giro zabalean; lana bertan edo inguruan (askotan euskaraz); diglosia nagusi: konpartimentazio soziofuntzional egonkorra (euskaraz mintzo, irakurri eta idatzi erdaraz; mintzaldaketarik ez); biztanleen ama-hizkuntza euskara (herritarrak "euskaldun zahar"); ohiko kultura sendo (jan-edanean, kirol-jolasetan, bertsoetan eta karta-jokoan, fede-sinesmenean, emandako hitzari eusteko ohituran); *Gemeinschaft*

* Testu hau BAT Soziolinguistika Aldizkariaren 100 zenbakian (2016) argitaraturiko txostenaren laburpena da, egileak berak egina.

¹ Olatz Altunaren oharra aintzakotzat hartuz hobe litzaiteke, agian, formula honetaz baliatzea: $ET = 0,75 \times E4 + 0,5 \times E3 + 0,25 \times E2$. Ināki Iurrebasori jasoa diogun beste hau ere aski egokia izan liteke: $ET = E4 + 0,5 \times E3$. Formula batuz, besteaz edo hirugarrenaz baliatzeak zernolako ondorio praktikoa lukeen ez dakigu: kalkulu horiek egin gabe daude, dakigula. Eginik eta argitara emanik dagoen HPSOren *ET*-formula ezagunaz baliatu gara beraz.

² Bibliografia teknikoan *face to face interaction*.

giroa bizirik (eskubide-eginbeharrak talde-giroan mamitzen; herritarrekiko kontaktu bizia, auzolanez eta talde-ospakizunez); kanpo-munduarekiko loturak ahul, herri-girokoak indartsu. Horren guztiaren ondorioz, euskararen belaunez belauneko jarraipena sendo;

Aldatuz doaz arnaguneak: euskaldunen kontzentrazioa-maila ahultzen ari; biztanle-kopuruz (oso) txiki: herri-herrixka edo auzo³; trasbase demografikoa gora (hainbat gazte kanpora doa eta kanpoko hainbat herritar erdaldun edo erdal-erlebidun bertara dator, banaka edo bikote moduan); garraiobide nagusiak gero eta eskurago: harreman-sare fisikoak irismenez zabaltzen eta dibertsifikatzen ari; lanera gero eta urrunago joan behar, erdara nagusi izanik sarri; saldu-erosia, aisialdiko hainbat ekimen bezala, herritik gero eta urrunago (herriburuan edo hiriburuan); konpartimentazio soziofuntzionala ahultzen edo hausten ari (hainbat erdaraz mintzo da; irakurri eta idatzi, aldiz, gero eta sarriago euskaraz); mintzaldaketa agertzen hasi da, zenbaitetan; biztanle batzuen ama-hizkuntza erdara da, edota euskara-erdarak ("euskaldun berri" gehiago); kultura supraetnikoa gailentzen ari; *Gemeinschaft* giroa galduz doa; kanpo-munduarekiko loturak sendotuz doaz, herri-girokoak ahulduz. Horren guztiaren ondorioz, euskararen belaunez belauneko jarraipena ahultzen eta urratzen ari da. Ez erabat, kasu gehienetan; bai oro har, hein batean. Arrazoizkoak dirudi arnagune beteak (BZ-5, BZ-6a) eta erasanak (BZ-6b) bereiztea (ikus V. atala).

2. NON GAUDE? 2011KO DATUEN TESTIGANTZA

2.1. BATEZ BESTEKO DATUAK

427.000 euskal hiztun trinko (ET) daude guztira Euskal Herrian, 2011n. Erabilera trinkoa EAEn kontzentratu dago (375.000 ET-hiztun); Nafarroan 29.000 dira eta Iparraldean 23.000. Hots, ET-hiztunen %87,8 EAEn bizi da, %6,8 Nafarroan eta %5,4 Iparraldean. Bedertzi lurralde-eremuetan, berriz, hau da ET-hiztunen osiera:

1. taula:

2011ko E4-, E3- eta ET-hiztunak, portzentajez. ET-hiztunak kopuruz

Lurralde-eremuen sailkapena	E4 %	E3 %	ET %	ET kop
1 Nafarroako euskal eremua	38,0	10,6	48,6	24.500
2 Gipuzkoa	26,6	12,4	39,0	235.000
3 Iparraldeko NBZ	10,2	20,4	30,6	10.100
4 Bizkaia	7,4	5,4	12,8	128.000
5 Iparraldeko LB	2,2	8,00	10,2	10.900
6 Araba	1,3	3,00	4,3	11.700
7 Iparraldeko BAM	0,3	1,8	2,1	2.000
8 Nafarroako bietariko eremua	0,1	1,6	1,7	4.700
9 Nafarroako erdal eremua	0,0	0,2	0,2	500

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011

Portzentajez Nafarroako euskal eremua eta, gero, Gipuzkoa dira nagusi. Kopuruz Gipuzkoa eta, gero, Bizkaia. Biak konbinatuz lehen hurbilketazko ondorio hau atera liteke: batez ere Gipuzkoan, Bizkai-Nafarroetako euskal eremuetan eta, ondotxo atzerago, Iparraldeko NBZn dago euskal jarduna bizirik. EAeko banaketa xeheagoa (Iparraldean bezalatsu, demagun, edota irizpide demolinguistikoa esplizituz) egingo balitz aski bestelako ranking-a aterako litzateke. Ondorio nagusiak ez lirateke ordea, seguruena, asko aldatuko.

³ Urolaldea eta Lea-Artibai daude egoera horretatik urrutien eta, honenbestez, osasuntsuen.

2.2. JARDUNGUNEEN ETA SOLASKIDEN ARABERAKO DATUAK

Etxeko eta kaleko datuak aski kontuan hartze-koak dira. Hona bateko eta besteko emaitzak⁴:

2. taula:

Etxeko ET-erabilera eta kaleko erabilera

etxeko ET-erabilera			
<i>nor norekin ari</i>	<i>EAE %</i>	<i>Naf %</i>	<i>Ipar %</i>
gurasoak seme-alabekin	22,8	8,0	11,1
anai-arrebak	20,1	7,0	13,6
seme-alabak gurasoekin	14,3	3,8	7,3
senar-emazteak ⁵	14,1	4,3	10,8
etxeokak, oro har	17,2	5,4	10,7

Kaleko erabilera

<i>Araba</i>	<i>Bizkaia</i>	<i>Gipuzk</i>	<i>Nafar</i>	<i>Ipar</i>	<i>EH</i>
% 4,0	% 9,4	% 32,7	% 5,7	% 6,2	% 13,3

Horrela ikusita "mundu bat" da Gipuzkoa, eta zeharo beste bat, Bizkaia aurreraxeago dabilela, gainerako guztia. Kaleko erabilera gora egiten du, nabarmen, solaskideen artean haurrak daudenean. Bat dator hori, oro har, etxeko erabilera-espektroarekin: seme-alabekin maizago egiten da euskaraz.

2.3. 2011KO ET-HIZTUNAK, ADINAREN ARABERA

Aski joera diferenteak ageri dira bederatzi lurralde-eremuetan. Adinean behera egin ahala indarberrituz doa ET-jarduna Araban (oso maila apaletik abiatuz); aldiz gainbehera doa Iparalde osoan (batez ere NBZn).

⁴ Iturriak: batetik V. Inkesta Soziolinguistikoa; bestetik 2011ko kale-erabilera. Ondorio aberatsagoak eskura litezke, datuak beste agregazio-unitatetan landuz. Horretan ari da Iñaki Iurrebaso, EAEko etxeko erabilera aztergai duela.

⁵ Hots, senar-emazteek beren artean nola egiten duten (seme-alabak bertan ez direnean edota, bertan izanik, solaskide ez direnean).

3. taula:

Erabilera trinkoa (ET-hiztunak), adin-taldeka eta lurraldearen arabera

	Lurralde-eremua	Erabilera trinko orokorra (ET-hiztunak), adin-taldeka				
		>= 65	50-64	35-49	25-34	16-24
		%	%	%	%	%
EAE	Araba	1,7	3,2	4,3	7,0	6,9
	Bizkaia	13,2	11,2	12,5	13,9	15,0
	Gipuzkoa	36,7	31,7	38,7	44,0	55,4
Nafarroa	Euskal eremua	49,5	43,1	43,9	56,7	60,9
	Bietariko eremua	0,8	0,9	1,7	1,8	4,0
	Erdal eremua					
Iparraldea	BAM	4,2	1,4	1,6	0,4	0,9
	LB	17,8	11,4	4,7	8,5	6,9
	NBZ	49,2	30,4	23,0	15,9	14,4

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011

Adin-taldearen arabera hiztun-portzentajeak belaunetaz belauneko jarraipen-mailaren iragarle dira, hein batez. Adin-taldearen lehenen, hirugarren eta laugarren zutabeak dira, alde horretatik, adierazgarrien. Lehen zutabeko baloreak beste bietatik eratorritakoekin konparatuz, hau ikusten-edo da: Iparraldean, NBZn bereziki, aski larri dago *bbj*; Nafarroako euskal eremuan eta Bizkaian ez da halako arriskurik ageri; Araban eta, bereziki, Gipuzkoan dago belaunetaz belauneko jarraipen hori seguruen. Kontuz, halere: lehen hurbilketa da hau guztia; ikus txosten osatuko azalpenak.

3. ZER GERTATU DA AZKEN 20 URTEAN?

3.1. ET-ERABILERAREN BATEZ BESTEKO BILAKAERA EAE-N, NAFARROAN ETA IPARRALDEAN

Hona bilakaera.

4. taula:
ET-hiztunen batez besteko bilakaera (%)

EAE			Nafarroa			Iparraldea		
1991	2001	2011	1991	2001	2011	1996	2001	2011
15,5	17,5	20,0	5,9	5,8	5,5	13,3	10,0	9,6

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011

Bederatzi lurralde-eremuetan, hona batez besteko ET-datuak: a) Araban, Bizkaian eta, batez ere, Gipuzkoan gora egin du ET-hiztunen portzentajeak. b) Nafarroako euskal eremuan ere gora egin du, apalago ordea. c) Gainerako bost lurralde-eremuetan atzera egin du ET-erabilerak, edota bere horretan (aski maila apalean) dirau. Nafarroa Behereko, Zuberoako eta Lapurdi barnealdeko atzerabidea deigarria da oso. Iparraldeko ET-euskaldun gehienen artean azken 150 urteko *Language shift* edo luze-zabaleko mintzaldatzea aski aurreraturik dago eta, translenguifikatzeko mekanismoak indartu eta ugaritu egin direlarik azken mende-laurdean, aurrera dirau mintzaldatze-fenomenoak.

3.2. ET-ERABILERAREN BILAKAERA ADIN-TALDEKA, EAEN, NAFARROAN ETA IPARRALDEAN

Hona erabileraren orokorraren emaitzak:

5. taula:
ET-hiztunen bilakaera (%), adin-taldeka

adin-taldea	EAE			Nafarroa			Iparraldea		
	>=65	25,3	20,6	19,3	7,2	6,6	5,8	26	18
50-64	16,6	15,5	16,7	6,0	6,1	4,9	20,3	10,4	10,2
35-49	13,3	16,6	19,7	6,5	5,5	5,1	7,5	8,9	6,0
25-34	14,2	16,6	22,3	4,1	5,0	5,6	4,5	3,7	6,0
16-24	12,4	18,9	26,8	5,7	6,4	7,3	1,3	2,2	5,5

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011

Adin-tarte zaharreneko hiztunen ET-jarduna ahultzen ari da eta gazteena (25-34 eta, bereziki, 16-24 adin-taldeetan) indartzen. Hiru adin-talde zaharrenetan zentratuz analisia (cf. Veltman 1983), ET-jardunaren belaunez belau-neko jarraipenari eusteko joera ageri da EAEn, ez ordea Iparraldean.

3.3. ET-ERABILERAREN BILAKAERA JARDUNGUNEA, EAEN, NAFARROAN ETA IPARRALDEAN

Hona V. Inkesta Soziolinguistikoa erabileraren etxe-giroko, kaleko, lan-esparruko eta administrazio-zerbitzuen alorreko emaitzak:

6. taula: Etxe-giroko ET-erabileraren %

solaskideak:	EAE			Nafarroa			Iparraldea		
	nor norekin ari	1991	2001	2011	1991	2001	2011	1996	2001
etxeokak, oro har	17,3	17,0	17,2	6,6	6,3	5,4	16,0	11,9	10,7
senar-emazteak	14,7	12,1	14,1	5,7	4,7	4,7	16,5	12,2	10,8
gurasoak seme-alabekin	18,1	20,5	22,8	6,5	6,7	8,0	16,5	10,7	11,1
seme-alabak amarekin	16,0	14,8	16,4	6,5	6,1	4,9	19,2	13,9	9,9
seme-alabak aitarekin	13,9	14,1	15,9	6,3	6,2	5,1	17,8	13,6	8,2
anai-arrebak	17,0	18,1	20,1	6,2	7,2	7,0	19,6	15,0	13,6

7. taula: Eguneroko kale-giro arrunteko ET-erabileraren %

solaskideak:	EAE			Nafarroa			Iparraldea		
	nor norekin ari	1991	2001	2011	1991	2001	2011	1996	2001
lagunekin	16,1	18,2	21,4	7,2	7,4	7,2	17,2	14,1	14,5
dendariekin	14,8	16,9	20,4	4,7	5,0	5,1	10,7	7,6	6,6

8. taula: Lan-esparruko ET-erabileraren %

solaskideak:	EAE			Nafarroa			Iparraldea		
	nor norekin ari	1991	2001	2011	1991	2001	2011	1996	2001
lankideak	15,4	18,0	24,6	5,3	5,4	7,0	11,9	8,5	10,9

9. taula: Administrazio eta zerbitzuetako ET-erabileraren %

solaskideak:	EAE			Nafarroa			Iparraldea		
	nor norekin ari	1991	2001	2011	1991	2001	2011	1996	2001
udal-zerbitzukoak	13,9	20,0	24,7	4,2	6,7	±6,3	14,4	9,1	8,4
osasun-zerbitzukoak	8,3	14,1	19,8	2,6	4,7	4,9	5,7	6,2	3,5
bankukoak	14,4	19,9	21,2	4,0	5,7	5,4	9,1	6,9	3,1

Lau taulen iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011

Zenbait ondorio: a) etxeko ET-erabilerak bere buruari eutsi dio EAEn, behera egin du zertxobait Nafarroan eta ahultzen ari da Iparraldean. b) kale-giro arrunteko ET-erabilerak gora egin du EAEn eta ongi eusten dio bere buruari Nafarroan, baina Iparraldean ahulduz doa. c) lan-esparruan eta administrazio-zerbitzuetan bestelako bilakaera erakusten du ET-erabilerak⁶: gora egin du EAEn (nabarmen) zein Nafarroan (heine batez), eta emeki apalduz doa Iparraldean.

3.4. KALE-ERABILERAREN BILAKAERA EUSKAL HERRIAN

Hona Olatz Altunaren balioespena: a) "Duela hamar urtetik hona euskararen kale-erabilera bere horretan dagoela esan daiteke, trabatuta. 2001eko erabilera 2011koaren berdina izan zen: % 13,3". b) "hogeita bi urteko epean, 2,5 puntu egin du gora euskararen erabilerak Euskal Herriko batez bestekoa".

3.5. ARNASGUNEETAN ZENTRATURIKO ANALISIA

Xabier Bengoetxeak berariaz aztertu du Tolosaldeko zenbait arnasmune⁷ eta ondorio hauek atera ditu. a) Euskararen aldeko nagusitasun-moldaerak indartsu jarraitzen du bertako ikasleen artean: etxean ez ezik auzoan, eskolan, kirolean eta elizan euskaraz bizi dira nagusiki. Belaunaz belauneko transmisio naturala ere aski bizirik dago etxe gehienetan. b) Hala ere, pitzadura ohargarriak sortzen hasi dira. Etxe-giroan ahultzen ari da euskararen nagusitasun-moldaera: oso apal, baina aski era generalean. Gurasoek beren artean erdaldunago dihardute, seme-alabekin jarduterakoan baino. Auzoan ere beheranzko joera antzematen hasi da: ez agian lagunekiko jolasean, baina bai bestelakoetan. Eskola euskal gotorleku da gazteontzat: beheranzko joera antzematen da ordea. Komunikazio alorrean (egunkari-aldizkariak, irrati-telebistak, internet,..), erdara da jaun eta jabe.

⁶ Ez dakigu, dena den, datu hauen interpretazioa behar bezain egokia den: ikus txosten nagusia.

⁷ Xehetasunetarako ikus txosten nagusia.


3.6. UDALERRI EUSKALDUNETAN ETA ARNASGUNEETAN ZENTRATURIKO ANALISIA

EAEko zentsuen datuak aztertuz, etxeko erabilera nagusia (E4-jarduna) dela-eta emaitza argiak atera ditu Iñaki Iurrebasok (ikus bibliografia eta, bereziki, txosten osatua). EAE osoa aintzat hartuta, ez da aldaketa handirik ikusten herritarren etxeko E4-erabileran: 1991. urtean %13,9 izatetik 2011. urtean %13,6 izatera pasa da. Udalerrri euskaldunetan, aldiz, gainbehera dator: %56,4tik %47,5era jaitsi da E4, eta %15,2tik %13,3ra pasa da E3. Udalerrri euskaldunetan ohargarria den gainbehera hori arras bizia da arnasmuneetan: herri-herrixka hauetan gero eta gutxiago egiten da euskaraz etxean.

c) Guraize-efektua ari da EAEn zabaltzen: erdara (arras) nagusi zen eta (arras) nagusi den lekuetan lehen baino maizago egiten da orain

1. grafikoa:

EAEko etxeko E4-jardunaren 1991tik 2011rako bilakaera, 1981ko dentsitate-mailaren arabera multzokaturik udalerrriak.



Euskaldunak

- %90-100 (1981ean)
- %80-90 (1981ean)
- %70-80 (1981ean)
- %60-70 (1981ean)
- %50-60 (1981ean)
- %40-50 (1981ean)
- %30-40 (1981ean)
- %20-30 (1981ean)
- %10-20 (1981ean)
- %0-10 (1981ean)

— EAEko UDALERRI GUZTIAK

euskaraz, etxean. Euskara arras nagusi zen lekuetan, aldiz, lehen baino maizago egiten da orain erdaraz edota euskara-erdarek parean dihardute, konpartimentazio argirik gabe. Euskararen erabilerak udalerrri euskaldunetako etxe-giroan izan duen atzerakada horrek azken hamarkadan hartu du indar gehien, 1991-2001 aldian ere halakorik gertatzen hasia zen arren.

Iñaki Iurrebasoren eta Xabier Bengoetxearen lanok balore handikoak dira, euskara indar-berritzeko lehentasunak non jarri argitzeko⁸. Inkesta bidezko eta kale-neurketazko analisi globalak, dituzten abantaila zabal eta ukaezinen ondoan, uzkur agertzen dira sarri euskararen etorkizuna non-nola bermatu argitzeko orduan. Lan zabal horien eta honelako analisi xehatuon sintesia ezinbestekoa da, euskarak bizi-indar handiena duen lekuetan zer gertatzen ari den ulertzeko.

4. ZERGATIK?

Azken bizpahiru hamarkadotan aurrera egin du euskararen erabilerak, euskal jardunak, eskualde edo herrialde batzuetako zenbait jardungune berritan. Atzeraka doa, aldiz, jardungune basikoagoetan, hizkuntzaren belaunetz belau-neko jarraipen-berme direnetan; desagertuz doa erabilera hori, horrezaz gainera, hainbat lekutan. Zergatik?

4.1. ZERGATIK GOAZ ATZERA?

Fishman-en arabera (Zalbide, 2001) bost faktoreok kontuan izan behar dira beti, hiztun-elkarte osoen edota, xeheago, hiztun-talde edo harreman-sare jakinen mintzaldaketa aztertzerakoan: a) *hizkuntza ahula erabiltzeko (are defendatzeko) debekua*; b) *dislokazio fisikoa*: gosetea, katastrofe naturalak eta txikizioak; c) *dislokazio demografikoa*: euskaldunok emigratzea edo erdaldunek bertara immigratzea; haurgintza nabarmen ahultzea edota haurrik ez egitea; d) *dislokazio soziala*, eta e) *dislokazio kulturala*.

4.2. ZERGATIK GOAZ AURRERA?

Euskara aurrera doala esaten denean, ondoko elementuok aipatu ohi dira maiz: hizkuntza bera landu, bateratu eta eginbehar berrietarako egokitu egin da; euskaldunen kopuruak gora egin du (herrialde eta adin-tarte jakinetan) eta hiztun askok, lehen ez bezala, euskaraz irakurtzen eta idazten daki; orain gutxira arte behu izandako hainbat jardungunetan euskaraz egiten da orain, gero eta maizago (eskolan, unibertsitatean, administrazioan, idatzizko prentsan, ikus-entzunezko komunikabideetan eta, partez, lan-mundu kualifikatuan); euskalgintza sendo zabaldu da han-hemen (*top-down* eta *bottom-up*); hizkuntza-soziologia aztergai monografiko bihurtu da azken urteotan, atzerriko informazioa bertaratuz eta gure arteko gogoeta informatuari ateak zabalduz.

4.3. ZERGATIK EGIN DA GORA EDO BEHERA, ZERGATIK ABIADURA DIFERENTEZ?

Honela dio Patxi Baztarrikak, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordeak: “euskararen lurraldearen barruko hiru erkidegoetan euskarak izan duen bilakaera askotarikoari so, esan liteke euskararen bilakaera soziala baldintzatzen duten faktoreak direla, beste zenbaiten artean, lege estatusa, herri-aginteen hizkuntza plangintza eta politika, eta herritarren atxikimenduaren neurria, eta, ondorioz, hiru faktore horien arteko loturaren tamaina”. (Baztarrika, 2014: 12).

4.4. UNE JAKINEAN ZERGATIK EGITEN DA EUSKARAZ GEHIAGO EDO GUTXIAGO?

Inkesta Soziolinguistikoaren lanketan diharduen lantaldeak honela dio: “euskararen erabileran eragiten duten faktore nagusiak bi dira: euskaldunen dentsitatea harreman-sarean, eta euskaraz egiteko erraztasuna”. Bi faktore horiez gain, badira beste batzuk ere eragina dutenak, hala nola, lehen hizkuntza, gune soziolinguistikoa eta hizkuntzarekiko interesa.

⁸ Iturri bateko eta besteko datuak aski bateragarriak dira.

4.5. ZER INGURUMEN-GIROTAN ARI DA EUSKARAREN ERABILERA GORA, BEHERA EDO BIETARA EGITEN?

Azken hamarkadotako bilakaera demografi-koa⁹, ekonoteknikoa¹⁰, soziokulturala¹¹, poli-tiko-operatiboa¹² eta lurralde-antolamendua-ren bilakaera bortitza¹³ ezinbesteko elementu dira bilakaera horren zergatikoak esplikatzeko. Elementu horiek kontuan izan gabe ezin da bilakaeraren atzera-aurrera bere osoan ulertu eta neurtu.

⁹ Haur-jaiotzen erabateko jaitsiera, euskaldunen emigrazioa eta erdaldunen immigrazioa.

¹⁰ Euskal mintza-esparruaren muinera dator hainbat erdaldun, bertako gazteen lan-merkatua zabalduz doa eta, azkenik, euskara irabazpide bihurtu da milaka profesionalentzat (40.000 profesional inguru EAEn)

¹¹ Sozializazioaren gero eta zati handiagoa familiatik kanpora osatzen da; sekularizazioa erabat zabaldu da eta lehen ez bezalako balio-sistema ari da gailentzen; aisialdi antolatua eta turismoa eragile bortitz dira "no-rekin zer hizkuntzatan hitz egin" definitzeko orduan; atzerria etxean dugu jadanik (ingelesaren irrupzioaz)

¹² Euskaltzaletasuna ez da balio politiko konpartitua, are gutxiago zazpi herrialdeetan uniforme. Lekuan lekuko aldeak eta graduak hor egonik ere, lehen ez bezalako aitortza du bertako hizkuntzak Hegoaldeko marko politikoan, EAEn bereziki. Euskalgintzaren oinarri da hori batzuetan, eta babesle beste zenbaitetan. Aginte-egitura estatalaren supraordinazioa argia da; *top-down* bidearen mugak, azkenik, gero eta ezagunago dira. Perspektiba zabalerako ikus, adibidez, Edwards 1992.

¹³ bide-sare berrituak nabarmen laburtu du amasgu-eneen behinolako babes-distantzia fisiko-tenporala. Bost hiriburuak, aireportuak eta industriagune nagusiak aski elkarren pegante jarri ditu bilakaera horrek, probintzien arteko bereizbideak hainbatean gesalduz. Hiriek gainezka egin dute eta kanpora irten dira. Industriaren eta teknologia-guneen antolamendu berriak nabarmen birmoldatu du milaka profesionalen kokaera espaziala.

5. HIZTUN-ELKARTEEN OSASUN-DIAGNOSTIKORAKO LANABESAK. BERTARAKO APLIKAZIOA. OSASUN-NEURPIDE HORREN ARABERA NON GAUDE?

Hiztun-elkarte edo hiztun-talde baten osasun- edo ahuldade-maila neurtzeko lanabes askotxo sortu izan da han-hemen. Orain dela ia berrogei urteko *Ethnolinguistic vitality* formulazio famatua hor dago orain ere, bere argi-ilunekin, guztion eskueran (Giles, Bourhis eta Taylor 1977, Bourhis 1979, Ehala 2010 eta Yagmur 2011). Hogeita bost urteotako osasun-neurpide ezagunei dagokienez, bestalde, ondo kontuan hartzekoak dira bost hauek: a) Fishman-en 1991ko *GIDS* edo *Graded Inter-generational Disruption Scale*, euskaraz *BAEN* edo *Belaun Arteko Etenaren Neurria*; b) Michael Krauss-en 1992ko bideragarritasun- edo ahuldade-maila; c) ahuldutako Hizkuntzen *Liburu Gorrikoa* (1994) edo *Ahuldutako Hizkuntzen Atlasekoa* (1996, 2001); d) UNESCOren *ad hoc* aditu-taldearen 2003ko *Language Vitality and Endangerment* eskala-multzoa eta, e) Lewis eta Simons-en 2010eko *Extended GIDS* edo *e-GIDS*, euskaraz *BAEN-zabal* (aurrerantzean *BZ*).

Neurpide bakoitzak bere argi-ilunak ditu. Mundu zabaleko situazioak hain diferenteak izanik, oso zaila da neurgailuok egoera guztiak zehatz eta argi analizatzeko balio izatea. Gatozen gurerara: hiztun-elkartearen osasun-azalpen globalaz gainera lekuan lekuko osasun-egoera argi zehazteko gai izan behar du neurgailuak, kontzeptu soziolinguistiko jeneraletan oinarriturik egon eta, ahal dela, aplikatzen erraza izan. Fishman-en jatorrizko konstruktutik abiatuz, Lewis-en eta Simons-en 2010eko formulazioa garatuz eta puntu jakinetan UNESCOren 2003ko zenbait ekarpen integratuz, hiru atal nagusiko eta hamalau mailako aplikazio hau prestatu dugu:

10. taula:

Euskararen osasun-diagnostikorako aplikazioa: non gaude?

G	BZ-2	komunikabideak eta administrazio-zerbitzuak euskaraz
	BZ-3	lan-esparrua euskaraz
	BZ-4	hezkuntza formala euskaraz
J	BZ-5a	herritarren eguneroko jardun arrunta euskaraz, hitzez eta (hainbatean) idatziz
	BZ-6a	herritarren eguneroko jardun arrunta euskaraz, hitzez
	BZ-6b	herritar gehienek eguneroko jardun arrunta euskaraz; hainbat herritarrek erdaraz egiten du
	BZ-6c	hainbat herritarrek euskaraz egiten du sarri, zenbaitek bietara eta hainbatek erdaraz.
	BZ-6d	herritar gehienek erdaraz egiten dute; hainbat herritarrek euskaraz egiten du etxean, lagunartean eta, hainbatetan, kalean
	BZ-6e	herritar gehien-gehienek erdaraz egiten dute; batzuek euskaraz edo bietara egiten dute etxean eta lagunartean, gainerakoan erdaraz
	BZ-7	haur-hazteko gurasoek, euskaldun izanik ere, ez diete seme-alabei euskaraz egiten. Etxean eta kalean erdaraz egiten da
U	BZ-8a	euskaraz egiten duten bakarrak aitona-amonen belaunaldikoak dira
	BZ-8b	hitz egiteko gai diren hiztun bakarrak aitona-amonak (edota zaharragoak) dira. Ez dute ia norekin euskaraz egin
	BZ-9	behinolako herri-izatearen, jatorrizko nortasun etnikoaren, oroigarri da hizkuntza
	BZ-10	jatorrizko nortasun etnikoarekiko lotura galdurik du hizkuntzak, are maila sinbolikoan

Hiru atal nagusitan banatu dira, esan bezala, hamalau osasun-mailak: esparru-garapenezko *G* alorra (*BZ-2*, *BZ-3*, *BZ-4*), eguneroko jardun arruntean eta belaunez belauneko jarraipenean oinarritzen den *J* maila-multzoa (*BA-6a/b/c/d/e*, *BZ-7*, *BZ-8a/b*) eta uste-balioen arabera *U* saila (*BZ-9*, *BZ-10*). Bigarren atal nagusia (*J*) da osasun-diagnostikorako aplikazio honen muin.

Aplikazioaren osasun-eskala horretan non gaude gaur euskaldunok? Erantzun argia du galderak: atal eta maila guztietan gaude; herritar batzuek batean, besteak bestean. Zer pisu dugu egungo euskal hiztunok maila bakoitzean? Argitzen zailagoa da hori. Hona erantzun-saio sintetikoa:

- a) Lan handia egin da garapenezko *G* alorrean, azken hamarkadetan: ahuldutako hiztun-herri europar gehienekin konparatuz, oso handia. Sarbide ohargarria izan

du euskarak horko hiru mailetan: *BZ-4n* izan ezik, halere, erdara da nagusi. Garapenezko hiru maila horiek osasungarri sendo dira maiz; kontestu modernizatuetan gero eta beharrezkoago. Beren baitarik ezin dute ordea belaunez belauneko jarraipen betea segurtatu: lagungarri dira, ez motore beregain.

- b) Osasun hobereana *arnasguneek*¹⁴ dute: *BZ-5*, *BZ-6a* eta *BZ-6b* mailetan dauden ingurumen fisikoek. Euskaraz egiten da bertan, erabat edo nagusiki, etxean eta auzoan, lagunartean eta herrigiro zabalean. Belaunez belauneko jarraipena inon baino sendoago segurtaturik daukate arnasguneek, luze-zabaleko transformazio demografiko, ekonotekniko, soziokultu-

¹⁴ *Arnasgune* terminoaren definizioarako ikus txosten osatua. Zenbait aurrekaritarako ikus, bereziki, Altube 1933 eta 1936.

ral, politiko-operatibo edo lurralde-antolamenduzkoek oraingo egoera okertzen ez badute.

- c) Batetik *arnasgune beteak* daude (BZ-5 eta BZ-6a): eguneroko jardun arruntean (hitzez eta, partez, idatziz) euskara erabat nagusi da bertan. Bestetik BZ-6b-ko *arnasgune erasanak*: herritar gehieneguneroko jardun arrunta euskarazkoa da hor ere, baina hainbat herritar erdaraz bizi da eta herri-giro zabalean eragin nabarmena du horrek. Hitzun-kopuruz oso txikiak dira arnasgune beteak, eta bizibidez inguruko herriburuaren edo hiriburuaren mendeko. Arnasgune erasanak handixeago dira hitzun-kopuruz (Azpeitia bereziki), eta bizibidez beregainago.
- d) Osasunez ahulago daude (BZ-6c) mailakoak. Ez dira *arnasgune*: euskara ez da eguneroko jardun arruntean nagusi, eta, partez, konprometitua dute belaunez belauneko jarraipena. Ahulduz doa hor euskal jarduna, baina bizirik dago. Herri eta (arnasgunez inguraturiko) herriburu mordoxka dago (BZ-6c)n. Aurrekoak baino handixeago dira hitzunez, askotan.
- e) Osasunez okerrago daude (BZ-6d) mailako herri eta herriburu ugariak batetik, Donostia bestetik. Hitzun-kopuru zabala bizi da (BZ-6d)n. Bertako euskaldunen belaunez belauneko jarraipena ahulduz doa nabarmen, euskal eskola eta guzti; *eus > erd* mintzaldaketa lanean ari da. Osasun-maila sendoagoko lekuetatik datorkien "euskal migrazioak" berdindu egiten du, inoiz aldatu ere bai, galera hori. Indarberritze-saio askoren abiaburu eta jomuga dira horko herritarrak.
- f) Egoera larrian daude (BZ-6e) mailako hitzun-talde euskaldunok: Donostiaz aparteko lau hiriburuetakook; XX. mendean immigrazio eta mintzaldatze larria jasandako herriburuetakook; Lapurdin, Bizkaian, Araban eta Nafarroan aspaldidanik "erdal eremu" diren lekuetakook. BZ-5eko eta BZ-6ko beste guztiek bezala seme-alabei euskaraz egiten diete (era-

bat edo nagusiki) baina, gizarte-bizitzaren mintzabide (ia) bakar erdara den lekuetan bizi direnez, euskararen belaunez belauneko jarraipena oso konprometiturik dute¹⁵. Nerabezarotik hasita "erdal itsasoan igeri" egitera beharturik daude horko gazte gehienak eta erdara dute kalean, lagunartean eta bikote-bizitzan eguneroko mintzabide arrunt: *eus > erd* norabideko mintzaldaketa indartsu ari da hor lanean. Garapenezko lagungarrien eraginaz gainera alde dute, hauek ere, osasun-maila sendoagoko lekuetatik datorkien "euskal migrazioa".

- g) Oso larria da (BZ-7)ko osasun-egoera. Gurasoen jokabide hori erro-errotik aldatzen ez bada, aldeko transformazio demografikorik gertatzen ez bada edota garapenezko neurriek eragin bortitzik sortzen ez badute belaunaldi bitan desgertuko da hor euskara, jendarteko jardunean.
- h) Larria ezezik agonikoa da (BZ-8a/b)ko egoera. Azken euskal belaunaldia da hori; jendarteko euskal mintzoaren amaiera; mintzaldaketa osoa. Bere baitariko indarberritze-biderik ez dago.
- i) Mintzajardunari dagokionez erdaldun huts dira (BZ-9)ko eta (BZ-10)eko herritarrak. Ez dago hor euskararen belaunez belauneko jarraipena eteteko bildurrik: egon ez dagoenik ezin da galdu.

(BZ-7, BZ-8, BZ-9, BZ-10) ingurumenetan, euskaltegi eta eskola bidezko berreuskalduntze-saioa ez da *HINBE* zabalik ekartzen ari. Biografia mailako gertakari da hor, ez luze-zabaleko arau, euskaltegi edo eskola bidez euskaldundutako hitzunak beren esfortzu biziak euskaltasun-habitat finko baten sorburu izatea.

¹⁵ Bada hor azpimultzo bat, aparteko arreta eskatzen duena: "euskal eremu"-tik bertaratu diren euskaldun gazteak eta haur-hazteko heldu ugariak. Halako asko ezagutzen dugu Araban, Jaurlaritza sortzearen eraginez besteak beste. Zer iraupen-berme dute hitzun-talde aktibo (askotan euskaltzale suhar) horien seme-alabek, 30-35 urteko perspektiban, lanbidez edo bikote-bizitzaz gurasoen jatorrizko euskal eremura itzultzen ez badira?

Erdalgiro nagusira biltzen dira hiztunok jendar-teko jardunean, adin batetik aurrera.

6. ERRONKA NAGUSIEI EGOKI ERANTZUTEN ZENBAIT HOBETUNTZA-PROPOSAMEN

Euskara-erdaren egungo gizarte-egoeraz gero eta gehiago dakigu, baina hizkuntza biak Aurrera begira elkar hartuzko formula egonkor batean nola uztartu litezkeen ez da zehazten erraza. Hartarako lehenetsun-neurriak argitu eta adostu behar dira, paradigma berria erai-kiz. Landu-arin dago gai hori, arras. Gainerako irizpideak gutxietsi gabe, sei lehenetsunok ai-patuko genituzke.

6.1. «EGINEZ IKASI» PARADIGMARA PASA

Azken hamarkadetako bidea aldatuz, «eginez ikasi» paradigmara pasa beharra dago lehen-bailehen: «lehendabizi ikasi, gero egin» formulaziotik «eginez ikasi» paradigmara pasa beharra. Eskolak dagoeneko egiten duena eta aurrerantzean egin dezakeena ez da gutxies-tekoa¹⁶. Dezakeena bakarrik egin dezake, or-dea, ez gehiago. Hizkuntza kontuan ere eginez ikasten da egiten. Euskaraz egiteko beharra, komenentzia edo aukera duten kontestuak lehenetsi behar ditu, hortaz, hobekuntza-pro-positamen orok. Zer egin horretarako?

6.2. EGUNEROKO JARDUN ARRUNTA ETA BELAUNEZ BELAUNEKO JARRAIPENA SEGURTATU

¹⁶ Zer egin dezake euskal eskolak? a) etxetik euskaldun diren ikasleen gaitasuna, euskaraz mintzatzeko ahal-mena, sendotu, idazmen-irakurmenez osatu eta min-tzajardun formal-espositiboan beharretarako osagaiez aberastu; b) etxetik (erabat edo nagusiki) erdaldun diren ikasleak euskaldundu, halako neurri batean; c) curri-culumaren euskal dimentsioa aurrez aurre landu; d) eskola, buru-langile eta buruzagi berrien harrobi, eta e) milaka euskaldun profesionalen bilgune eta pizgarri: es-kola da HINBE-ren aldeko ordainsari-sistema nagusia, kopuruz eta lurralde-hedaduraz. Ikus, xehetasunetara-ko, txosten osatua.

Gizarte-bizitzan euskaraz egiteko aukera, ko-menentzia eta beharra eragiten duten prozesu hurbilak oso kontuan izan behar dira. Eguneroko jardun arrunta prozesu-multzo horren ondo-rio da, eta belaunez belauneko jarraipenaren iturburu nagusi. Garapen-saioen aurretik jarri behar dira, hortaz, eguneroko jardun arrunta eta belaunez belauneko jarraipena zurkaiztea. Hori gabe alferrik da.

6.3. KONPARTIMENTAZIO SOZIOFUNTZIONAL BERRIA(K) BIRSORTU

Eguneroko jarduna konpartiturik dugu eta, hoberenean ere, hala izango dugu. Etxean eta auzoan, kalean eta lanean, hiriburuan eta opor-lekuan, telebistan eta *internet*-en euska-raz bakarrik egiten duen herritar multzo zaba-lik ez dago: arnaguneetan ere ez. Erdararen etxekotzea iritsi den mailara iritsi delarik eus-kaldun gehienek ez dute gainera, aukera izanik ere, euskara hutsezko bidea hautatzen: “behar denean” erdaraz (ingelesez ere bai, ahal de-larik) egiten dute. Euskara-erdarekin kontatu beharra daukagu hortaz begien bistako etorki-zunean. Arrain handiak txikia jateko bide arris-kutsua da hori, baina bide bakarra.

Noiz euskaraz egin, eta noiz erdaraz, euska-rari bizirik eutsiko bazaio? Gauza bera egite-ko, solaskide ber(ar)ekin ingurumen berean solas-modu bera aurrera eramateko ez da hizkuntza bi edo gehiago behar izaten, *code-switching* eta irri-joko jakinen alorretik kan-pora. Horrelako bikoiztapen erredundanterik ez da gertatzen, bereziki, belaunez belauneko perspektiba egonkorrean. Leku berean hizkun-tza bik (edo gehiagok) bizirik iraungo badute, bakoitzak bere espazio argia behar du. Gurera etorri, konpartimentazio soziofuntzional argi-ko elebitasun-molde egonkorra behar du eus-karak, lehenik eta behin, bizirik aterako bada: euskaldunok gure artean euskaraz jarduteko ahalik eta behar, komenentzia edota aukera ugarienak eragiten dituen konpartimentazioa. Gaur ditugun eta bihar-etzi seguruenik izango ditugun baldintza soziolinguistikoetara ego-ikituko den konpartimentazio soziofuntzional berria asmatu, adostu eta antolatu behar dugu horretarako: belaunez belauneko perspek-

tiban bere buruari eusteko¹⁷ lain izango den moldaera. Luze-zabaleko konpartimentazio soziofuntzional egonkor hori da, hain zuzen, *diglosia* (Zalbide, 2011). Arnasguneetan egin liteke berritze-lan hori errazenez, hemen eta orain. Ez hitzun gehienak bertan bizi direlako, euskararen nagusitasun-moldaera bizienik hor dagoelako baizik, ditugu arnasmuneak hain funtsezko.

6.4. ARNASGUNEEN FUNTSEZKO IZAERA GURE LEHENTASUNETAN ARGI ETA SENDO TXERTATU

Arnasmuneen funtsezko izaera aitortzetik bere aldeko neurri sendoak aplikatzera pasa behar da: azken hamabost-hogei urteak arnasmuneon gainbehera bizikoak izan dira, eta neurriok gabe ez dute hobera egingo. Euskarazko jardunak bizigiro informalean leku oparoa izango duen espazio trinkoa, sakabanatze edo dispertsio fisiko nabarmenik gabea, ezinbesteko baldintza da euskarak etorkizunik izango badu. Espazio horietan bakarrik lor liteke, luze-zabal, ama-hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipen betea. Jarraipen-bide hori gabe ez dago munduan bere buruari bizirik eutsi izan dion hitzun-elkarerik. Euskara jaun eta jabe (edota, gutxien-gutxienez, nagusi) deneko moldaera hori errazago eskura liteke eguneroko habitat hurbilean. Hilik daudenak berpizten hastea baino funtsezkoago da arnasmuneetan bizirik dagoen euskarazko jardun arruntari, eguneroko hizkera-molde informalarri, bizirik eustea eta, nagusitasun hori zurkaiztuz, euskal berbakera arrunta ingurumen hurbileko esparruetara hedatzea. Ondotxo errazagoa da bizirik dagoenari bizirik eustea, hilurren dagoena osasun betera ekartzea edota, bereziki, hilik dagoena berpiztea baino.

Errazago izateak ez du esan nahi erraza denik. Hartarako eginbeharrak oso dira delikatu eta nekagarri. Bertarako *top-down* ezarpenetan ezinbesteko lagungarri dira euskaraz diharduten eskola, osasun-zentroa eta udaleko edo

eskualdeko administrazioa¹⁸. Lagungarriak lagungarri, besterik da zentrala: a) arnasmuneen estabilizazio demolinguistikoa; bertako bizilagun (gazte) gehienak bertan (edo inguruan) bizi izaten gera daitezen, eta kanpoko erdal-lebidunak edo erdaldun hutsak bertan bizi izatera samaldan etorri ez daitezen, lortu behar da: migrazio-fluxuen soziolinguistikazko ahalmenaren zati ohargarri bat herritarren esku izatea eta ahalmen hori zuhurki erabiltzea eskatzen du horrek; b) arnasmuneari eta bere ingurumenari bideragarritasun sozioekonomikoa bermatu behar zaio: lanetik bizi da jendea; c) berariazko atentzioa eskatzen dute arnasmuneez hiri-plangintzaren alorrean¹⁹, eta d) herritarrek beraiek konpartimentazio soziolinguistikoa eta soziokultural berri bat adostu eta herri-giroan aplikatu behar dute; herri-giro beregain bati eutsi behar diote, herriko biztanle zahar eta gazteentzat *Gemeinschaft* moldeko bizibide soziokultural berri-pizgarria moldatuz.

Oso lan zailak dira lau horiek, bai bizimolde demokratiko modernizatuetako pautak organizatibo nagusien aldetik eta bai, are, funtsezko oinarri etikoen ikuspegitik. Nor dago prest, "lau katuren arazo marjinal" bategatik hainbat arriskatzeko? Hor dago koska. Arrisku-neurri horiek asumitu gabe ezin da ordea aurrera egin: zentral-zentrala da kontu hau.

6.5. (BZ-6C)KO LEKUAK (BZ-6B) MAILARA ITZULI, EDOTA GUTXIENEZ HARTARA HURBILDU

Garrantzitsuak dira ingurumenok ere, duten biztanle-kopuruagatik eta kokaera geografikoagatik²⁰. Herri eta herriburu horiek eskaintzen dute, arnasmuneen ondoan, euskalgintzarako oinarri sendoena. Hauek ere berariazko atentzioa eskatzen dute migrazio-fluxuen, bideragarritasun sozioekonomikoaren, birmol-

¹⁷ Hots, belaunez belauneko jarraipen-oinarri horrezaz bere buruari bizirik eusteko eta, hortik abiatuz, espazio-soziofuntzional eta espazial berrietara hedatzeko ahalmena duen moldaera.

¹⁸ Oro har euskaldun bete izan behar dute bertako (edo bertan eragin zuzena duten) langileek: batzuek hitzez, besteek hitzez eta idatziz.

¹⁹ Etxalde edo auzo berriak planteatzerakoan gehiegizkoa ote litzateke (BZ-6b)ko herriburuetan D ereduko espazioak planteatzea?

²⁰ Aparteko pisua du (BZ-6c) mailako hainbat herriburuk eskualdeko edo herrialdeko harreman-sareetan.

datze soziokulturalaren eta hiri-plangintzaren alorrean. Osasun ahulagoko ingurumenetan gabiltzanez, oso lan gogorra da hori: bai goitik beherako plangintza instituzionalerako gogorra, eta bai behetik gorako indarberritze-saioetarako. Bizi-giro informal-intimoa planifikatzea oso da eginkizun zaila: zaila eta, zenbait aldeetatik, aski diskutigarria²¹.

6.6. (BZ-6D) ETA (BZ-6E) MAILAKO HERRIBURU ETA HIRIBURUETAN INDARBERRITZE-SAIO BEREZIAK APLIKATU

Euskal hiztun gehienak ez gara arnasmunetan bizi; (BZ-6c)ko ingurumenetan ere ez. Hiriburuetan eta herriburu nagusietan bizi gara gehienak: (BZ-6d)ko ingurumenetan batzuk (batez ere Donostian eta bere gerri-bueltan: Irundik Andoainan doan konurbazioan), (BZ-6e) koan besteak. Bertan jaiotako euskal hiztunen eta bizi izatera etorritako euskaldunen bilgune ditugu lekuok. Erdal-giroan murgil eginik bizi dira gehienak²².

Eguneroko bizigiro arrunta berreskuratu behar da hor, ezer baino lehen: *pockets of basic, everyday, informal life*. Oso-oso lan zaila da hori. Erdara nagusi (askotan jaun eta jabe) den ingurumenetan euskarazko hiztun-taldeak edota harreman-sareak eratzea eskatzen du horrek. Nola egin hori? Bide batezko euskalgintzaz edo bide batezko hizkuntza-plangintzaz²³, aurrez aurrekoaz bezainbat edo gehiago. Euskarazko zerbitzu-eskaintza eratu behar da hor, halakorik nahi edo behar duten euskaldunentzat. Goitik beherako plangintza

²¹ Ikus, adibidez, Branchadell-en 2000ko "La oposición a las políticas de catalanización y los límites de la intervención pública en materia lingüística".

²² Badira, halere, lan-esparruan euskara nagusi (edo erdararen pareko) dutenak: D (eta B) ereduko irakasleak (Haur Hezkuntzatik hasi eta unibertsitateraino), prentsako eta irrati-telebistetako euskal profesionalak, kultura-esparrukoak eta administrazio-alorrekoak. Kopuru ohargarria osaturik ere, gutxiengo nabarmena (%10etik beherakoa) dira. Hala izaten segituko dute, itxura osoz, begien bistako etorkizunean.

²³ "Bide batezko euskalgintza"-ren eta "bide batezko hizkuntza-plangintza"-ren kontzeptuez ikus Zalbide 2007a eta 2015. Ikus orain, orobat, Rodríguez, 2016b:138-9.

instituzionalak dagoeneko eskaintzen dituen euskarazko eskolatze- eta alfabetatze-aukera ugarietz gainera²⁴, eta behetik gorako perspektiban seguruenik, euskaldun-jendearen arteko harreman-sare informalak eratu, zabaldu, indartu eta bizirik mantendu behar dira. Auzo-laguntzan oinarrituriko formulazioa dugu, horretarako, hoberena: euskaldun-jendeak behar dituen zerbitzu normalak²⁵ euskaraz eratu eta "D eredu" moduan eskaintzea. Herritarren benetako beharrei erantzuteaz gainera, "bide batez" alegia, esparru informal-intimoetan euskarazko jarduna indartzeko eta zabaltzeko neurri egokiak antola litezke. Euskaraz bizi diren edota euskaraz bizi nahi duten hiztun-taldeentzako atentzio-ardura izanik helburu nagusi, euskarazko jardunari arnas-gelaxkak zabaltzen zaizkio eta, azkenik baina ez azken, hainbat herritar euskaldunentzako diru-sarbidea eratzen da. Izugarri lan delikatua da hori guztia: arras delikatua baina kreatibo-moderno eta, bere aje guztiekin, askogatik emankorrena.

7. BEHARREZKO BALIABIDEA: AHULDUTAKO HIZKUNTZA INDARBERRITZEKO GOGOETA-ETXEA

Gizartearen altzoan gertatuz doazen transformazioen eskutik joan ohi da mintzajardunaren gorabidea, iraupena, gainbehera edota galera. Gizarte osoaren, edo bere baitako gizatalde edo harreman-sare jakinen, transformazio demografiko eta lurralde-antolamenduzkoek, ekonoteknikoek, politiko-operatiboek eta soziokulturalek eragin bizia izan ohi dute horretan. Ahuldutako hizkuntza indarberritzeko

²⁴ Orobat irrati-telebistetan eskueran dagoen aukera, eta abar. Elkarren eskutik joan behar dute aukera-bide biek.

²⁵ Honako hauek, besteak beste: etxeko haurren zaintza, adineko pertsonak etxean edo auzoan atenditzeko zerbitzuak, gazte-jendearen eta adinekoren aisialdi-eskaintza, jan-edanaren inguruko antolamendua, turismoa eta aste-bukaerako irteerak, interes edo xede jakineko herritar zahar eta, bereziki, gazteen harreman-sareak. Bikote berrien sorburu diren interakzio-guneei aparte-ko atentzioa zor zaie hor. Bertan jokatzeko da sarri, belaunez belauneko jarraipenaren azken partida.

saioak perspektiba global horretan txertatu behar dira hortaz. Gizarte-plangintza horren altzoan txertatu behar du bere jarduna *HINBE*-lanean ari denak.

Aditu-jendeak bideratu beharreko hiru atal nagusi ditu *HINBE*-lanak: estrategia, taktika eta ebaluazioa. Azken 120 urtean lan handia egin dugu taktika alorrean. Gutxiago landu dugu, aldiz, ebaluazio saila. Gutxien landu dugun alorra strategiarena da. Horri buruzko *gogoeta-saio informatua* landu-arin dago gure artean (ikus halere, besteak beste, S. Arana-ren 1901eko, K. Eleizalderen 1919ko edota S. Altuberen 1933ko eta 1936ko ekarpenak. Lau eskakizun-baldintzok ongi betetzea eskatzen du strategiako gogoeta-saio informatuak: a) eguneroko jardunaren nagusitasun-moldearaz, belaunez belauneko jarraipenaz, mintzaldaketaz eta *HINBEz* nazioarteko bibliografia teknikoak zer dioen jakitea; b) oraingo eta lehengo *eus > erd* mintzaldaketaren,, orobat *HINBE*-saioen, berri izatea; c) hizkuntza-soziologiaren perspektibatik gure egoeraren diagnostiko zehatza egiten jakitea; eta d) "hemen eta orain" ditugun baliabide jakinekin hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena indartzeko jardungune eta jardunbide egokienak identifikatzen jakitea. Ama-hizkuntzaren belaunez belauneko transmisio betea elementu zentrala da gogoeta-saio horretan.

Indarberritze-saioei buruzko irizpide nagusien gaineko gogoeta-lan jarraikia antolatu, bideratu, zabaldu eta, ebaluazio-emaizten argitan, eguneratu beharra dago gure artean. Eginkizun nagusi irizpide horiek lantzea izango duen gogoeta-gunea behar da horretarako. Ahuldutako hizkuntza indarberritzeko saioen inguruko gogoeta-etxea.

Gogoeta-etxe horrek galdera hauei eman behar lieke, gure ustez, lehentasun osoa:

- a) Zertan oinarritzen da ahuldutako hiztun-elkarteen²⁶ belaunez belauneko jarraipena, non dago beren iraupen-indarra?

²⁶ Hiztun-elkarte osoez edota beren baitako hiztun-talde jakinez ari gara hemen, oro har.

- b) Noiz, nola eta zergatik uzten zaio herritarren ama-hizkuntza belaunez belauneko perspektiban luze-zabal transmititzeari?
- c) Gurea bezala nabarmen ahuldutako hiztun-elkarteen ama-hizkuntza belaunez belaun transmititu, zurkaiztu eta hedatzeko lehentasun-irizpideak zein dira?
- d) Belaunez belauneko transmisio betea xede-helburu duen indarberritze-saioan zer leku, eta zer lehentasun, dagokie egunetik egunera ahulduago ditugun arnasguneei? Nola definitu hauek?
- e) Hizkuntza handien eta ahulduen (gurean euskararen) arteko bizikidetzak zein ardatz nagusiren jira-biran antola liteke XXI. mende honetan, hizkuntza ahularen kaltegarri izango ez den *modus vivendi* (ez *morendi*) luze-asmozkoa eratzeko?

Besterik ere egin behar luke gogoeta-etxe honek, aurreko eginkizun horien lagungarri: hainbat oinarri kontzeptual eta zenbait ikermetodo garantia onez bideratzeko lagungarri operatiboak diseinatzen laguntzea. Osasun-neurpideak egoki neurtzeko tresneria kontzeptual eta metodologikoa landu, zehaztu, kontrastatu eta, ahal delarik, adituen artean adostu ondoan ahalik eta era uniforme-iraunkorrenean aplikazio-bidean jartzea. Ondoko bi osasun-neurpideok, bereziki, hobekuntza eta bateratze beharrea daude: a) eguneroko jardun arrunta etxean, kalean eta herri-giro zabalean; b) lan-esparruko erabilera. Ez dira bakarrik, hobekuntza eta bateratze beharrea daudenak; bai ordea, erabilera kontuei dago kienez, premia larrikoak.

Ebidentzia empirikoa ez da munduko gaitz guztien sendagarri. Ezer gutxi egin liteke ordea, ebidentzia empirikoa aintzakotzat hartu gabe. Gure nor izatearen harrotasuna, lanerako ilusioa eta saiatuaren saiatuz etorkizun hobea eskura dezakeguneko esperantza behar-beharrezkoak ditugu. Ezinbestekoak izanik ere ez dira, ordea, aski. Horien aurretik, eta horien gainetik, eskarmentua izan behar dugu gidari: gertatu eta gertatzen ari denaren gaineko

jakite sendoa, esperientzia metatua. Samuel Johnson-en hitzetan esanik, "a lost cause is a cause whose adherents permit hope to take precedence over experience." (Fishman, 2007 [1996]). Arrazoi bidezko gogoeta-lanean oinarrituriko *experience* hori gabe nekez egin liteke, honetan ere, aurrera. Berariazko gogoeta-gunea behar da horretarako.



Erreferentzia bibliografikoak

- Altube, Seber, 1933: "La Vida del Euskera" in *EUSKERA*, 1933-IV: 299-397 or.
- 1936: "Más sobre la Vida del Euskera", in *EUSKERA*, 1936-I-IV: 1-217 or.
- Altuna, Olatz, 2016: "Euskararen ahozko kale-erabilera: erronkak". Euskaltzaindiak 2016ko otsailean *Euskara biziberritzen jarraitzeko erronkak* izeneko jardunaldian aurkezturiko txostena.
- Baztarrika, Patxi, 2014: "Bizi-indarra ostertzean", in *V. Inkesta Soziolinguistikoa*, 12 or.
- Bengoetxea Muxika, Xabier, 2012: "Arnasguneak. Ezaugarriak. Zenbait arnasmuneren egoeraren behaketa". *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 85 (75-118).
- Bourhis, Richard Y., 1979: "Language and ethnic interaction: A social psychological approach", in H. Giles eta B. Saint-Jaques (ed.) *Language and Ethnic Relations*. Oxford: Pergamon Press.
- Branchadell, A., 2000: «La oposición a las políticas de catalanización y los límites de la intervención pública en materia lingüística», in *Grenzgänge14 (Thema: Neue Herausforderungen für die Katalanische Soziolinguistik)*, 65-79.
- Edwards, J. 1992: "Sociopolitical aspects of language maintenance and loss: Towards a typology of minority language situations", in *W. Fase, K. Jaspaert eta S. Kroon Maintenance and loss of minority languages*, 37-54 or. Amsterdam: John Benjamins.
- Ehala, Martin, 2010: "Refining the notion of ethnolinguistic vitality", in *International Journal of Multilingualism*, 7: 363-378 or.
- Eleizalde, Koldo, 1919: "Metodología para la restauración del euskera", in *I Congreso de Estudios Vascos*, 428-439 or.
- Eusko Jaurlaritza, 2013: *V. Inkesta Soziolinguistikoa (2011)*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Fishman, J. A. 1972. *The sociology of language; an interdisciplinary social science approach to language in society*. Rowley, Mass.: Newbury House.
- 1976: *Bilingual Education: An International Sociological Perspective*. Rowley: Newbury House.
- 1989: *Language and Ethnicity in minority sociolinguistic perspective*. Clevedon: Multilingual Matters.
- 1990: «Eskolaren Mugak Hizkuntzak Biziberritzeko Saioan», in *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua* (1, 181-188).
- 1991: *Reversing Language Shift: Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon: Multilingual Matters.

- 2007a [1996a]: “What Do You Lose When You Lose Your Language?”, in Gina Cantoni, ed., 2007 [1996],
- 2007b [1996b]: “Maintaining Languages: What Works and What Doesn’t”, in Gina Cantoni, ed., 2007 [1996], (165-175 or.).
- Fishman, J. A. ed. 2001: *Can threatened languages be saved?* Clevedon: Multilingual Matters
- Giles, H., Bourhis, R.Y. eta Taylor, D.M., 1977: “Towards a theory of language in ethnic group relations”, in H. Giles (ed.). *Language, Ethnicity and Intergroup Relations*, 307-348 or.
- International Clearing House for Endangered Languages, 1994: *Red Book of Endangered Languages*. Tokyo.
- Iurrebaso, Iñaki, 2012: “Euskararen erabilera zertan den. Premiako diagnostiko bat datuen argitan”, in *BAT soziolinguistika aldizkaria* 84, 2012 (3), 103-120 or.
- 2014: *Udalerrri euskaldunak EAEn: egoera eta bilakaera 1981-2011*, Soziolinguistika Klusterra, Andoain.
- 2015: “Udalerrri erdaldunak euskalduntzen eta euskaldunak erdalduntzen, arnaguneak arriskuan. EAE, 1981-2011”, in *BAT soziolinguistika aldizkaria* 95, 2015 (2), 71-101 or.
- Krauss, Michael, 1992: “The world’s languages in crisis”, in *Language*, 68-1 alea, 4-10.
- Lewis, M. Paul, eta Gary F. Simons. 2010. “Assessing endangerment: Expanding Fishman’s GIDS”, in *Revue Roumaine de Linguistique* 55(2):103–120.
- Mackey, William F., 1997: “International Centre for Research on Bilingualism: The Sociolinguistics on Language Contact”, in Christina Bratt Paulston eta G. Richard Tucker editore, *The early days of Sociolinguistics*, 273-8.
- Rodriguez, Txerra, 2016: “Soziolinguistika: euskalgintzak”, in *Jakin* 214, 2016ko maiatz-e-kainetako, 138-9 or.
- Soziolinguistika Klusterra / Olatz Altuna (2016): *Kale erabileraren neurketak (Euskal Herria). 1989 - 2011*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- Tönnies, Ferdinand, 1887: *Gemeinschaft und Gesellschaft*. Leipzig: Fues’s Verlag.
- UNESCO Ad Hoc Expert Group on Endangered Languages, 2003: *Language Vitality and Endangerment*. Unesco.
- Veltman, Calvin, 1983: *Language Shift in the United States*. Berlin: Mouton
- Wurm, Stephen Adolphe, 1995: “Methods of language maintenance and revival with selected cases of language endangerment in the world.”
- 1996: *Atlas of the World’s Languages in Danger of Disappearing* (first edition). UNESCO Publishing.
- Yagmur, Kutlay, 2011: “Does Ethnolinguistic Vitality Theory account for the actual vitality of ethnic groups? A critical evaluation”, in *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 32-2 alea, 111-120 or.
- Zalbide, M. 2001: *Fishman-en HINBE edo RLS*. Donostia, graduondoko HIZNET ikastaroaren baitako materiala. Ik. erabili.com/erabili-eus.
- 2002: “Ahuldutako hizkuntza indarberitzea: teoriak zer dio?” in *Ikastolen IX. Jardunaldi Pedagogikoak*,
- 2007: “Iparraldeko euskalgintza XIX. mendearen bigarren erdian: Zaldubi eta bere garaia” in *Euskera* 52, 3., 877-100.
- 2011: “Diglosiaren purgatorioaz. Teoriatik tiraka”, in *BAT soziolinguistika aldizkaria* 79-80 zkiak., 13-152.
- 2015: “XX. mendeko hizkuntza-plangintza, Sabino Aranaren 1901eko saioaren argitan”, in *Hermes* 50, 10-29or.